



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruña, 2002ko otsailaren 7a

9 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru Lege proiektua, Nafarroako arriskuko material espezifikoak suntsitzeko arauak ematen dituenaz. Zuzenketak aurkezteko epea etetea (3. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 10/1994 Foru Legeari xedapen gehigarri bat gehitzeko, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua (4. or.).
- Foru Lege proposamena, toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko zenbatekoa eta banatzeko formula ezartzen dituen abenduaren 30eko 23/1997 Foru Legea aldatzekoa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua (5. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako aurrekontu orokorrek Hirugarren Munduko herrialdeekiko elkartasunerako erabili behar duten ehunekoa finkatzeari buruzkoa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua (7. or.).
- Foru Lege proposamena, garapenerako lankidetzari buruzko martxoaren 9ko 5/2001 Foru Legea aldatzekoa, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak aurkeztua (8. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitateko Gobernuari eta Administrazioari buruzkoa, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztua (9. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako aurrezki kutxen zuzendaritza organoei buruzko apirilaren 21eko 7/1987 Foru Legea hein batean aldatzekoa, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua (30. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako jatorrizko deitura duen ardoaren sektorea sustatzeko, Socialistas del Parlamento de Navarra, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua eta Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeak aurkeztua (33. or.).
- Foru Lege proposamena, hondakin bereziei buruzko irailaren 20ko 13/1994 Foru Legea aldatzekoa, Bata-suna Parlamentuko Taldeak aurkeztua (35. or.).

- Foru Lege proposamena, erditze multipleak izan dituzten familientzako laguntzari buruzkoa, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztua (37. or.).
- Foru Lege proposamena, Gizarte Eskubideen Agiriari buruzko apirilaren 6ko 9/1999 Foru Legea aldatzeko, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztua (40. or.).
- Foru Lege proposamena, 2002tik 2006ra bitarteko urteetarako etxebizitzaren arloko presako jarduketei buruzkoa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua (42. or.).
- Foru Lege proposamena, Euskal Herrirako Unibertsitateari buruzkoa. Tramitera ez onartua (51. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak, eta Parlamentuko informazioa:**

- Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko bi legelari lanpostu huts lekualdatze-lehiaketaren bitartez betetzekoa. Onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda (52. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Nafarroako arriskuko material espezifikoak sunsitzeko arauak ematen dituen

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA ETETEA

2002ko urtarrilaren 28an eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

Nafarroan arriskuko material espezifikoak sunsitzeko arauak ematen dituen Foru Lege proiektu

tuari zuzenketak aurkezteko epea etetea, Mahaiak, Nafarroako Gobernuak bidalitako informazioa ikusita, bere tramitazioaren jarraipenarekin zer egin erabaki arte.

Iruñean, 2002ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria, José Luis Castejón Garrués

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 10/1994 Foru Legeari xedapen gehigarri bat gehitzekoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko otsailaren 28an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 10/1994 Foru Legeari xedapen gehigarri bat gehitzeko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 108 eta 145. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 10/1994 Foru Legeari xedapen gehigarri bat gehitzeko buruzko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2. Aipatu foru lege proposamena premiazko prozeduraz bideratzea.

3. Foru Lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 108 eta 145. artikuluetan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2002ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proposamena, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 10/1994 Foru Legeari xedapen gehigarri bat gehitzekoa

ZIOEN AZALPENA

Lurraldearen antolamendu eta hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legearen bidez arautzen dira Nafarroako Foru Komunitatean lurraldearen antolamendu eta hirigintzako gaiak; horien artean daude lurzorua merkaturatu esku hartzeari buruzko administrazio jarduerak. Hirigintzako eskumenak, foru legean ezarritakoarekin bat, aukera ematen dio kasuko administrazio eskudunari ekimen pribatuaren parte hartzea eskatzeko, baldin eta horrela hirigintzaren xede eta helburuak hobeto betetzen badira.

Nafarroako Foru Komunitatean, lurzorua merkaturatuaren egoera ikusita, eta babes publikoko erregimeneko etxebizitzaren eskaintza hain urria izanik, komenigarria dirudi Nafarroako Gobernuari eta udalei aukera ematea etxebizitzak sustatzen dituzten erakunde sindikalei lurzoruak besterentzeko; horrela, babes publikoko erregimeneko etxebizitzaren eskaintza handitu egingen litzateke eta Nafarroako gizarteak arlo horretan dituen beharrak arindu.

Horregatik justifikatua dirudi beste xedapen gehigarri bat ezartzeak Lurraldearen antolamendu eta hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legean; helburua da Nafarroako Gobernuari eta udalei aukera ematea zenbait ondasun zuzenean besterentzeko erakunde sindikalei babes publikoko etxebizitzak eraiki ahal izan ditzaten.

Xedapen gehigarri berria. Zenbait ondasunen besterentze zuzena.

Nafarroako Gobernuak eta udalek zuzenean besterendu ahalko die erakunde sindikalei lege honetako 271.1 artikulua aipatzen dituen ondasunak, baldin eta erakunde horiek babes publiko-

ko erregimenen bateko etxebizitzak sustatzen badituzte eta frogatzen badute sustatze horretarako baliabide eta eskarmentu nahikoa dutela. Gobernuak behar diren neurriak hartuko ditu babes publikoko erregimen horretako etxebizitzak

hartzen dituztenek behar diren baldintzak betetzen dituztela bermatzeko.

Azken xedapena

Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Lege proposamena, toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko zenbatekoa eta banatzeko formula ezartzen dituen abenduaren 30eko 23/1997 Foru Legea aldatzekoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko zenbatekoa eta banatzeko formula ezartzen dituen abenduaren 30eko 23/1997 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena. Toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko zenbatekoa eta banatzeko formula ezartzen dituen abenduaren 30eko 23/1997 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Bigarrena. Foru Lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2002ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proposamena, toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko zenbatekoa eta banatzeko formula ezartzen dituen abenduaren 30eko 23/1997 Foru Legea aldatzekoa

ZIOEN AZALPENA

1978ko Konstituzioak, 140. artikuluan, udalen autonomia bermatzen du, eta, 142. artikuluan ezartzen duenez, toki ogasunek behar adina baliabide izanen dituzte legeak esleitzen dizkien eginkizunak aurrera eramateko; baliabide horiek tributu berekien bidez eskuratuko dituzte, bai eta Estatuko tributuetan nahiz autonomia erkidegoetakoetan parte hartuz ere.

Nafarroako toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko 259. artikulua dienez, toki entitateei behar adina baliabide emanen zaizkie dituzten eskumenak erabili eta helburuak bete ditzaten; baliabide horiek toki ogasunei buruzko foru lege batean arautuko dira, gai horrek Nafarroaren toki araubide berekia osatzen baitu –Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoko 18.2 artikulua.

Halaber, Nafarroako toki administrazioari buruzko Foru Legearen 260 eta 261 c) artikuluek ezartzen dutenez, Nafarroako toki ogasunek Foru Komunitateko tributuetan parte hartuko dute.

Nafarroako foru ogasunei buruzko martxoaren 10eko Foru Legeak 123.1 artikuluan xedatzen duenez, toki entitateek Nafarroako foru ogasunean izanen duten parte hartzea aurrekontu orokorreari buruzko foru legeetan ezarriko da eta urte bat baino gehiagotarako ere ezarri ahal da.

1. artikulua. 2002ko ekitaldi ekonomikorako, toki entitateek Nafarroako foru ogasunean izanen

duten parte hartzea 178.283.095 eurokoa izanen da; Nafarroako aurrekontu orokorretan jasoko da.

2. artikulua. Esleitutako parte hartzearen zenbatekoa, 2002ko aurrekontualdian, honela banatuko da:

I.- Transferentzia arruntak: 109.934.142 euro

II.- Kapital transferentziak: 40.245.339 euro

III.- Beste laguntza batzuk:

A. Iruñeko Udalarentzat, "Hiriburutza agiria" dela eta: 13.605.057 euro

B. Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarentzat: 180.304 euro

C. Nafarroako gainontzeko udalarentzat: 5.303.072 euro

D. Berriazko funts sortu berria: 9.015.182 euro

"Beste laguntza batzuk" izeneko saila aldatu eta hurrengotzako zuzkidurak sartu dira: Iruñeko Udalarentzat, "Hiriburutza agiria" dela eta; Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarentzat; eta berriazko funts sortu berri bat —9.015.182 euro— Iruñea ez beste udalarentzat. Azken funts hori banatzeko ondoren esanen diren irizpideei jarraituko zaie, eta formula bat ere aplikatuko da, irizpide horien arabera izanen baita; Nafarroako Gobernuak hiru hilabeteko epean lege proiektu bat igorriko du aipatu formula ezartzeko, eta legea sei hilabeteko epean onetsi beharko da.

Udal bakoitzari emanen zaiona, aipatutako salbuespena salbuespen, hurrengo irizpideei jarraituz eginen da:

1.- Udalek babes ofizialeko etxebizitzak egiteko duten lurra (zuzenki proportzionala).

2.- Nafarroako etxebizitzak guztira hartuta, etxebizitza hutsak (alderantziz proportzionala).

3.- Ospitale-zerbitzuetaraino dagoen tartea, kilometrotan (zuzenki proportzionala).

4.- Nafarroako batxiler institutueta eta unibertsitate zentroetaraino dagoen tartea (zuzenki proportzionala).

5.- Zerotik hiru urtera bitarteko ikasgela kopurua (zuzenki proportzionala).

6.- Immigrazioari buruzko plan integralak.

7.- Zerbitzu mankomunatuaren bategitea eta zerbitzu administratiboena, bategite horrek eragindako biztanle kopuruaren arabera.

Xedapen iragankorra

Foru lege hau 2002ko aurrekontualdian aplikatzeak dakarren konpromisoari aurre egiteko, eta lege hau indarrean sartzean urte horretako aurrekontua onetsita ez badago, baizik eta aurreko urtekoa luzatu bada, Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Parlamentuak onetsi dezan, kreditu berezia izateko foru lege proiektua igorriko du foru lege hau indarrean sartu eta biharamunean.

Azken xedapena

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Lege proposamena, Nafarroako aurrekontu orokorrek Hirugarren Munduko herrialdeekiko elkartasunerako erabili behar duten ehunekoa finkatzeari buruzkoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobeitzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Nafarroako aurrekontu orokorrek Hirugarren Munduko herrialdeekiko elkartasunerako erabili behar duten ehunekoa finkatzeari buruzko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Nafarroako aurrekontu orokorrek Hirugarren Munduko herrialdeekiko elkartasunerako erabili behar duten ehunekoa finkatzeari buruzko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2. Foru Lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2002ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proposamena, Nafarroako aurrekontu orokorrek Hirugarren Munduko herrialdeekiko elkartasunerako erabili behar duten ehunekoa finkatzeari buruzkoa

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Foru Komunitateak betidanik izan du elkartasuneko jokabidea Hirugarren Munduko herrialdeekin; giza eta gauza baliabideak eman izan zaizkie lankidetzara eta elkartasunerako Amerika eta Afrikako herrialdeei bereziki.

Betidanik izan den jokabide horren alde materialak ez du Nafarroako aurrekontu orokorrek izan duten bilakaera izan, nahiz eta baden Nafarroako Parlamentuaren konpromiso bat aurrekontuetako baliabideen % 0,7 horrelako laguntzetan erabiltzeko. Zenbatekoa kalkulatzeko, Nafarroako Gober-

nuak zertan erabiliko duen erabakitzeko askatasuna duen aurrekontu zatia hartzen da; hau da, aurrekontuari kendu egiten zaizkio finantzazamak, Hitzarmen Ekonomikoaren ondorioz Estatuari egin beharreko ekarpena, eta toki entitateei egin beharreko transferentziak; izan ere, diru kopuru horiek Estatuari eta toki entitateei ematen zaizkienez, horiek dira, aldi berean, baliabideen % 0,7 Hirugarren Munduari laguntzeko emateko konpromisoa hartu behar dutenak.

Konpromiso hori aurrekontuetako eztabaidaren baitan gera ez dadin, eta % 0,7ko konpromisoa hurrengo hiru urteetan % 1 bilaka dadin, foru lege hau onestea proposatzen dugu.

Artikulu bakarra. 2002, 2003 eta 2004ko aurrekontualdian aplikatuko diren Nafarroako Aurrekontu Orokorrek, Hirugarren Munduko herrialdeetako lankidetzara eta elkartasunerako, diru kopuru hauek emanen dituzte urtean: % 0,8, % 0,9 eta % 1 hurrenez hurren.

Ehuneko horiek diru kopuru honen gainean ezarriko dira: aurrekontua ken finantza-zamak, Hitzarmen Ekonomikoaren ondorioz Estatuari egin beharreko ekarpena, eta toki entitateei egin beharreko transferentziak.

Xedapen gehigarria

Nafarroako Gobernuak aurrekontu orokorre buruzko proiektuetan beharrezko kontusailak jarriko ditu foru lege honen ondoriozko konpromisoak betetzeko.

Xedapen iragankorra

Foru lege honen ondoriozko konpromisoak betetzeko 2002 aurrekontualdian, Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Parlamentuak onetsi dezan, kreditu berezia izateko foru lege proiektua igorriko du foru lege hau indarrean sartu eta hila-beteko epean.

Azken xedapena

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hila-beteko epean hartuko du indarra.

Foru Lege proposamena, garapenerako lankidetzari buruzko martxoaren 9ko 5/2001 Foru Legea aldatzekoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobe-tezari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artiku-luak aitortzen dion legegintzarako ekimena erabi-liz, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak garapenerako lankidetzari buruzko mar-txoaren 9ko 5/2001 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Garapenerako lankidetzari buruzko martxo-aren 9ko 5/2001 Foru Legea aldatzeko Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena Nafa-rrako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2. Foru Lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. arti-kuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2002ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proposamena, Garapene-rako lankidetzari buruzko martxoar-en 9ko 5/2001 Foru Legea aldatzekoa

ZIOEN AZALPENA

Nazio Batuen irizpenari jarraikiz, zioen azalpe-nean Garapenaren aldeko lankidetzari buruzko Foru Legeak dioenez, Nazio Produktu Gordinaren ehuneko 0,7ko kuota desiragarria da garapenera-ko laguntza ofizial gisa; hori beste tresna bat da herrialde pobretuek giza garapen jasagarria sus-tatu dezaten.

Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkurak 1994ko urriaren 25ean onetsi zuen erabaki bat Nafarroako Gobernuak premiatzeko Nafarroako aurrekontu orokorretako gastuen aurrekontuaren zenbatekotik % 0,7 eman zezan garapenerako laguntzarako, finantza gastuak, Estatuarentzako ekarpena eta toki entitateetarako transferentziak kenduta..

Halaber, 2001eko irailaren 20an eginiko Osoko Bilkuran, erabaki bat onetsi zen Nafa-rrako Gobernuak gehitu zezan garapenerako lankidetzarako kontusaila Nafarroako 2001eko aurrekontu orokorretako gastuen aurrekontuko % 0,7ra iritsi arte, Parlamentu honek lankide-tzari eta hirugarren munduaren garapenerako laguntzari buruz hartutako erabakian (1994-10-25) eta Garapenaren aldeko lankidetzari buruz-ko foru legearen zioen azalpenean erabakita-koa betez.

Ildo beretik, Foru Komunitatearen egoerari buruzko eztabaida egin zenean azkenezkoz, beste erabaki bat onetsi zen Nafarroako Gober-nua premiatzeko "heldu den urterako aurrekontue-tan aurrekontu orokorretatik 100eko 0,7 eman dezan garapen lanetarako, eta hurrengo urteetan ehuneko 1eraino ere handitu dezan."

Parlamentuak erabaki horiek onetsi bazituen ere, Nafarroako Gobernuak ez die kasurik egin, eta 2001eko aurrekontuak nahiz 2002rako aurreikusitako aurrekontuak ere –azkenean ez da onetsi– % 0,7 baino gutxiago ematen zuten garapenaren aldeko lankidetzari buruzko kontu-sailetarako.

Aurreko horiek horrela, argi samar dirudi Garapenaren aldeko lankidetzari buruzko Foru Legea onestean akatsa izan zela, ez baitzen eza-rri zein beharko zuen lankidetzarako gutxieneko diru kopurua, halako moduz non Gobernuak ez lukeen kopuru hori urrituko bere borondatearen arabera.

Aurrekoarekin bat, lege honen helburua da araututa uztea Nafarroako aurrekontu orokorretan urtero diru kopuru jakin bat eman behar dela garapenaren aldeko lankidetzarako kontusaileta-rako.

I. KAPITULUA Xedapen orokorrak

1. artikulua. Garapenaren aldeko lankidetzari buruzko martxoaren 9ko 5/2001 Foru Legea-ren 2. artikuluari beste letra bat gehituko zaio; hona:

"f) Hemen ezarritako helburuak zuzen betetze-ko, Nafarroako aurrekontu orokorretako gastuen aurrekontuko % 0,7 izanen da gutxienez garape-naren aldeko lankidetzarako; hurrengo hauek, hala ere, kendu egingen dira: finantza gastuak,

Estatuarentzako ekarpena eta toki entitateetarako transferentziak.

2002 urtean, % 0,7 emanen da; 2003an, % 0,8; 2004an, % 0,9; eta 2005etik aitzina, % 1.”

Azken xedapena

1.- Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitateko Gobernuari eta Administrazioari buruzkoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artiku-luak aitortzen dion legegintzarako ekimena erabi-liz, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak Nafarroako Foru Komunitateko Gobernuari eta Administrazioari buruzko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145, 149 eta 150. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Nafarroako Foru Komunitateko Gobernuari eta Administrazioari buruzko Foru Lege proposa-mena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziale-an argitara dadin agintzea.

2. Foru Lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145.2 arti-kuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2002ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitateko Gobernuari eta Administrazioari buruzkoa

AURKIBIDEA

ZIOEN AZALPENA

ATARIKO TITULUA

1. artikulua. Helburua

I. TITULUA. NAFARROAKO GOBERNUA

I. KAPITULUA. ARAUBIDE OROKORRA

2. artikulua. Izaera eta osaketa

3. artikulua. Gobernu Kontseiluaren funtziona-mendua

4. artikulua. Gobernu Kontseiluaren idazkaritza

5. artikulua. Gobernuaren kargu-uztea

II. KAPITULUA. GOBERNU KONTSEILUAREN ATRIBUZIOAK

6. artikulua. Gobernu Kontseiluaren atribuzioak

7. artikulua. Batzorde eskuordetuak

III. KAPITULUA. GOBERNUAREN LAGUNTZA-ETA LANKIDETZA-ORGANOAK

8. artikulua. Idazkari teknikoen batzordea

9. artikulua. Kabineteak

10. artikulua. Foru Komunitatearen mandatariak

11. artikulua. Gobernuko eleduna

II. TITULUA. NAFARROAKO GOBERNUKO LEHENDAKARIA

I. KAPITULUA. HAUTATZEA ETA ESTATUTU PERTSONALA

12. artikulua. Lehendakaria

13. artikulua. Hautatzea eta izendatzea

14. artikulua. Bateriaezintasunak

15. artikulua. Foru prozesala

16. artikulua. Kargu-uztea

17. artikulua. Kargua hutsik egotea

18. artikulua. Aldi baterako ordezkatzak eta ez-egoteak

19. artikulua. Nafarroako Foru Komunitatearen ordezkariak

II. KAPITULUA. LEHENDAKARIAREN ATRIBU-ZIOAK

20. artikulua. Ordezkaritzako atribuzioak

21. artikulua. Zuzendaritzako atribuzioak

22. artikulua. Eskumenak esku-ordetzea

III. KAPITULUA. ERANTZUKIZUNA ETA PARLAMENTUAREN KONTROLA

23. artikulua. Erantzukizun politikoa

24. artikulua. Zentsura-mozioa eta konfiantza-ara-zoa

25. artikulua. Lehendakariordea

26. artikulua. Kontseilariak

27. artikulua. Izendapena

28. artikulua. Kargu-uztea

29. artikulua. Kargu hutsak eta ordezkapenak

30. artikulua. Bateriaezintasunak

31. artikulua. Foru prozesala

32. artikulua. Erantzukizuna.

33. artikulua. Kontseilarien atribuzioak

34. artikulua. Gobernuak Parlamentuan duen ordezkaritza.

IV. TITULUA. GOBERNUAREN LEGEGINTZA-EKIMENA ETA ARAUGINTZA-AHALMENAK

I. KAPITULUA. LEGEGINTZA-EKIMENA

35. artikulua. Legegintza-ekimena

36. artikulua. Ekimenaren prozedura

II. KAPITULUA. FORU DEKRETU LEGEGILEAK

37. artikulua. Foru dekretu legegileak

III. KAPITULUA. ARAUGINTZA-AHALMENA

38. artikulua. Araugintza-ahalmenaren titularrak

39. artikulua. Erregelamendu mailako xedapenak. Forma.

40. artikulua. Arauen hierarkia

41. artikulua. Eraginkortasuna

42. artikulua. Prestatzeko prozeduraren hasiera

43. artikulua. Entzunaldia eta parte hartzea

44. artikulua. Informazio publikoa

45. artikulua. Txostenak eta irizpenak

46. artikulua. Espedientea

V. TITULUA. GOBERNUAREN EGINTZAK KONTROLATZEA

47. artikulua. Kontrol motak.

VI. TITULUA. ADMINISTRAZIOAREN ANTOLAMENDUA ETA FUNTZIONAMENDUA

I. KAPITULUA. ADMINISTRAZIOA ETA HAREN ORGANOAK

48. artikulua. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa

49. artikulua. Antolamenduko eta funtzionamenduko printzipioak

50. artikulua. Herritarrei zerbitzua emateko printzipioa

51. artikulua. Administrazio organoak

52. artikulua. Oinarrizko organoak

53. artikulua. Organoak sortu, aldatu edo deuseztatzea

II. KAPITULUA. ESKUMENEN ARAUBIDEA

54. artikulua. Printzipio orokorrak

55. artikulua. Deskontzentrazioa

56. artikulua. Esku-ordetzea eta ordezkatzea

57. artikulua. Eraginkortasunaren kontrola

IV. KAPITULUA. KIDE ANITZEKO ORGANOAK

58. artikulua. Araubidea

59. artikulua. Sortzeko baldintzak

60. artikulua. Kideak

61. artikulua. Lehendakariaren eginkizunak

62. artikulua. Kideen eginkizunak

63. artikulua. Idazkariaren eginkizunak.

64. artikulua. Aktak

VII. TITULUA. ADMINISTRAZIOAREN JARDUKETA

I. KAPITULUA. ARAU OROKORRAK

65. artikulua. Jarduteko arauak

66. artikulua. Gora jotzeko errekurtsioa

67. artikulua. Administrazio bidearen amaiera

68. artikulua. Berrikusteko errekurtsio berezia

69. artikulua. Administrazioak bere kabuz berrikustea

70. artikulua. Kaltegarritzat jotzea

71. artikulua. Ezeztatzea eta zuzentzea

72. artikulua. Aurretiko erreklamazioak

73. artikulua. Txosten juridikoa

74. artikulua. Akzioez baliatzea eta laguntza juridikoa

II. KAPITULUA. ADMINISTRAZIO-EGINTZEN ARAUBIDEA

- 75. artikulua. Ebazpenak
- 76. artikulua. Kontratuak
- 77. artikulua. Zehapen ahalmenaren araubidea
- 78. artikulua. Ondare erantzukizunaren araubidea

VIII. TITULUA. ERAKUNDE PUBLIKOAK ETA SOZIJETATE PUBLIKOAK

I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

- 79. artikulua. Nortasuna eta atxikipena
- 80. artikulua. Sorrera, desegitea eta likidatzea
- 81. artikulua. Erakunde publikoak

II. KAPITULUA. ERAKUNDE AUTONOMOAK

- 82. artikulua. Erakunde autonomoak
- 83. artikulua. Sorrera
- 84. artikulua. Langileak, ondarea, ogasuna eta kontratazioa
- 85. artikulua. Eraginkortasunaren gaineko kontrola.
- 86. artikulua. Arau osagarriak

III. KAPITULUA. ZUZENBIDE PRIBATUKO ENTE PUBLIKOAK

- 87. artikulua. Definizioa
- 88. artikulua. Sorrera
- 89. artikulua. Langileak
- 90. artikulua. Ondarea eta kontratazioa

IV. KAPITULUA. SOZIJETATE PUBLIKOAK

- 91. artikulua. Sozietate publikoak
- 92. artikulua. Sorrera eta desegitea
- 93. artikulua. Araubidea

Xedapen gehigarriak

Lehena. Fundazioak

Bigarrena. Partzuergoak

Hirugarrena. Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Legea aldatzea

Laugarrena. Entitateen erregistroa

Bosgarrena. Atalburu eta bulegoburu karguak aldi baterako izendatzea

Xedapen iragankorra

Xedapen indargabetzailea

Amaierako xedapenak

Lehena. Foru Legea garatu eta aplikatzea

Bigarrena. Aldatzea

Hirugarrena. Indarra hartzea

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren indarrez legegintza ahalmena eskuratu ondoren Nafarroako Parlamentuak onetsi zituen lehen arauetako bat, Nafarroako Foru Komunitatearen Gobernuari eta Administrazioari buruzko apirilaren 11ko 23/1983 Foru Legea da. Lege horrek lagundu egin zuen une hartako foru erakundeak Nafarroaren autogobernuko araubidean zabaltzen zen etapa berrirako berrantolatzen, hala behar baitzuen.

Ordutik iragan diren urteek, alde batetik, aldaketa handiak ekarri dizkiote Foru Komunitateko Administrazioari, ez bakarrik zerbitzatzen duen Nafarroako gizartean eraldaketa handi eta azkarak gertatu direlako –garaiari dagokion bezala–, baizik eta Estatuko Administrazioaren eginkizun eta zerbitzuak transferitzeko prozesuarengatik ere, hain zuzen ere Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoak Foru Komunitateari aitorturiko eskumenen arloan. Administrazioaren eginkizunak nabarmen hazi dira; haren giza- eta gauza-baliabideak eta kudeaketaren konplexutasuna ere asko hazi dira. Bestalde, antolamendu juridikoan garrantzi handiko aldaketak gertatu dira, eta aldaketa horiek zuzeneko eragina izan dute 23/1983 Foru Legeak araututako gaietan. Adibide moduan, aski da aipatzea Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea eta urtarrilaren 13ko 3/1999ko Legearen bitartezko haren aldaketa eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren beraren erreforma, martxoaren 26ko 1/2001 Lege Organikoaz gauzatua.

23/1983 Foru Legeko manu asko geroko beste lege-arau batzuen bitartez aldatu edo zuzenean indargabe utzi badira ere, gaur arte ez da hartan xedatutakorik ez berraztertu, ez gaurkotu ere. Foru Lege honen bitartez, erabateko aldaketa bat egin nahi dugu, aldaketa partzialik egin beharrean, ahal den guztian behar diren segurtasun juridikoa eta koherentzia bermatzeko, hobeki zaintzen baitira horiek testu berri oso batekin. Ederki daki-gu denok zeinen garrantzitsua den hemen arautzen dugun gaia. Gobernuak botere exekutiboaren burua eta Administrazioaren organo gorena den aldetik, sistema parlamentario moderno guztien

protagonismo instituzional handiena bereganatzen du; eta Nafarroako Gobernu edo Foru Diputazioa, Nafarroako Parlamentuaren kontrolarekin baitago, Foru Komunitateko autogobernua sendetsi eta baliatzeko tresna nagusietako bat da. Bestalde, Zuzenbideko estatu sozial eta demokratikoak, Espainiako Konstituzioak eratutakoak, eragin zuzena du Administrazio Publikoan. Izan ere, 9.2 artikulua Administrazio Publikoari, gainerako botere publikoei bezala, pertsonaren eta haiek osatzen dituzten taldeen askatasuna eta berdintasuna benetakoak eta eraginkorrak izan daitezela oztzatzen dituzten trabak gainditzeko eginkizuna esleitzen diote; 103. artikulua aldiz, administrazio jarduketaren legezkotasun printzipioa eta interes orokorren zerbitzuan duen tresna-izaera ezartzen ditu. Direlako interes orokorrak, berriz, herritarren eskubide eta interes legitimoen arabera definitzen dira, parte hartzeko printzipio konstituzionalaren arabera. Herritarrei eman beharreko zerbitzuak ezinbesteko egiten du Administrazio Publikoa, besteak beste, errealitate sozialari eta objektibotasun, eraginkortasun eta gardentasun printzipioei egokitzea.

Foru lege honek Gobernuaren eta Administrazioaren araubide juridikoa arautu nahi du, alde batetik printzipio konstituzionalen eta behar diren lege-printzipioen argitan eta bestetik funtzionamenduko esperientzia luzearen eta Estatuaren eta autonomia erkidegoen baitako legegintza-esperientzia hurbilen argitan ere. Berariaz bilatu nahi izan dugu administrazioaren jardura herritarrengana hurbiltzeko zenbait mekanismo sartzeari, herritarrek baitira haren izatearen arrazoia, zehazki deskontzentrazio printzipioa bideratuz. Aurreko arauetan, ebazteko ahalmenaren baliatzea Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren departamentuen buruztetan kontzentratzen zen. Departamentu horien hazkunde etengabeak eta eginkizun gero eta gehiago eskuratzeak berekin ekarri dute espedienteak ebazteko garaian halako botila lepoak suertatzea eta praktikan interesduinak ezin iristea ebazpena eman behar duen organoarengana. Ahalmenen kontzentrazioa azken urte hauetako lurralde-deszentralizazio prozesuaren eragin paradoxikoa da; lehen Estatuko Administrazioan zuzendaritza probintzial baten mailan edo are beheagoko organoetan erabakitzen zena kontseilari baten edo, onenean, hark eskuordetutako zuzendari orokor baten eskumen bilakatu da Foru Administrazioan. Foru lege honen bitartez, erabakitzeko ahalmena zerbitzuko zuzendariei, zuzendari nagusiei eta beheagoko organoei eman zaie, langileen gaineko zuzendaritza eta diziplina eginkizunetan. Halaber, kontseilari eta zuzendari nagusien egintzek –azken horie-

nak langileria kontuetan soilik– amaiera ematen diote administrazio-bideari, Gobernuari administrazio errekursoen ebazpen espedienteen kopuru handiaren ardura kentzeko. Neurri hauekin –administrazio organo ezberdinen eskumenak berrantolatzeke beste arau batzuekin osatu beharko dira, noski–, benetako deskontzentrazioaren bidean aurrera egingen dugu, hain zuzen ere zerbitzueta-ko edo zuzendaritza nagusietako buruen esku utziz alde aurretik araututako errutinako espedienteen ebazpen arrunta, eta kontseilarien edo Gobernu Kontseiluaren esku utziz bakar-bakarrik garrantzi handiagoko eta zuhurtziarakotasun handiagoko espedienteak.

Malgutasun handiagoko elementu batzuk ere sartu dira, administrazio-egiturak unean uneko beharren arabera egokitzeko. Hartara, departamentuen katalogo itxi bat ez egitearen aldeko hautua egin dugu, eta lehendakariari ematen zaio horiek sortu, aldatu eta deuseztatzeko ahalmena; bestalde, kontseilariari, atalak sortu, aldatu eta deuseztatzeko ahalmena ematen zaie –lehen, Gobernuaren esku zegoen hori–, eta foru legean aipaturikoez bestelako organo batzuk egoteko aukera aurreikusten da, halakorik sortu behar izanez gero. Malgutze horrek, halere, bere kontrapisua du, alegia, beharkizun batzuen exijentzia: motibazio berariazkoa, giza-, gauza- eta aurrekontu-baliabideen berrantolamenduari buruzko azterlan bat egin beharra eta Foru Komunitatearen Administrazioaren mendeko erakunde publiko eta sozietate publikoak sortzeko foru lege bat egiteko beharra. Halaber, administrazio-kudeaketaren profesionalizazioa lortzeko bidean, argi eta garbi ezartzen da atalburu eta bulegoburu karguak izendatzeko merezimenduen lehiaketa erabiltzeko beharra, behin-behineko barneko kargu-betetzearako gehienez ere urtebeteko epea utziz.

Azkenik, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren mendeko edo hari lotutako zuzenbide publikoko entitate eta merkataritza sozietateei buruzko arauak arrazionalizatu eta sistematizatu nahi izan ditugu. Ogasunari, ondareari edo kontratuei buruzko aurreko beste arau batzuekin koherentziaz jokatzeko, “erakunde publiko” izen komunen baitan bildu dira erakunde autonomoak eta zuzenbide pribatuko entitate publikoak: lehenbiziko funtzionamendua administrazio-zuzenbidearen arabera da eta bigarren funtzionamendua, berriz, zuzenbide pribatuaren arabera. Bestalde, “sozietate publiko” izena Administrazioak partaidetza handiena duen merkataritza izaerako sozietateetarako uzten da. Nafarroako Kontuen Ganbarak behin eta berriz emandako gomendioei jarraituz, erregistro bat ezarri da erakunde publiko eta sozietate publikoak kontrolatzeko, bai eta

Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioak, beste pertsona publiko edo pribatu batzuekin batera, parte hartzen dueneko beste entitateak, fundazio pribatu nahiz partzuergo formulen arabera sortutakoak, kontrolatzeko ere.

ATARIKO TITULUA

1. artikulua. Helburua

Foru lege honek Nafarroako Foru Komunitateko lehendakariaren, Gobernuaren eta Administrazioaren araubide juridikoari aplikatzekoak diren xedapen orokorrak ezartzen ditu, eta Gobernuaren legegintza ekimenaren eta araugintza-ahalmenen baliatzea arautzen du.

I. TITULUA

Nafarroako Gobernua

I. KAPITULUA

Araubide Orokorra

2. artikulua. Izaera eta osaketa

1. Nafarroako Gobernua da, lehendakariaren zuzendaritzapean, Foru Komunitatearen politika orokorra ezartzen eta Administrazioa zuzentzen duena. Halaber, eginkizun exekutiboa eta araugintza-ahalmena baliatzen ditu Konstituzioak, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetze-ari buruzko Lege Organikoak eta foru lege honek ezarritako esparruan.

2. Gobernuak bereziki zainduko du Nafarroako Foru Eraentzaren osotasuna, eta gertatzen den kontraforu ororen berri eman beharko dio Parla-mentuari.

3. Nafarroako Gobernua lehendakariak, lehendakariordeak eta kontseilariak osatzen dute. Kontseilari bakoitza departamentu baten burua izanen da, baina departamenturik gabeko kontseilariak ere egon ahal izanen da. Gobernua kontseilariak kargua hartzen duten unean geratuko da eraturik.

4. Gobernuak Nafarroako bandera eta protokolo gainerako ikur eta elementu tradizionalak erabiliko ditu ezaugarri.

5. Gobernuak, bere eginkizunetan aritzeko bildurik, Gobernu Kontseilua osatzen du.

3. artikulua. Gobernu Kontseiluaren funtzionamendua

Gobernu Kontseiluaren funtzionamenduak ondoko arauak bete behar ditu:

a) Gobernu Kontseiluaren bileretarako deia lehendakariak eginen du; deialdiarekin batera

aztergaien zerrenda eta aztertu beharreko gaien buruzko dokumentazioa erantsi beharko dira.

b) Gobernu Kontseiluaren eraketa baliozkoa izanen da bertan lehendakaria edo haren ordezkoa eta, gutxienez ere, kontseilarien erdiak baldin badaude.

c) Gobernu Kontseiluaren bileretan aurkezten diren dokumentuak isilean gordetzekoak eta isilpekoak izanen dira, salbu eta Gobernu Kontseiluak berak haiek jendaurrean jartzea erabakitzen badu. Izaera bera izanen dute Gobernu Kontseiluaren eztabaidek ere, eta ematen diren iritziz eta botoek ere. Kontseiluko kideek haiek isilean gordetzeko betebeharra izanen dute, baita Gobernuak uzten dutenean ere.

d) Gobernu Kontseiluaren erabakiak bertaratariko kideen gehiengo soilaz hartuko dira. Berdin-eketak lehendakariaren botoaz erabakiko dira.

e) Erabakirik hartzen ahalko da aztergaien zerrendan agertzen den gaien buruz soilik. Hala eta guztiz ere, presako arrazoiengatik, Gobernu Kontseiluak gai-zerrendan agertzen ez diren gaien buruz eztabaidatu eta, kasua bada, erabakirik hartu ahal izanen du.

f) Lehendakariak Gobernu Kontseiluaren bileretara goi karguak, Administrazioako funtzionarioak eta adituak deitu ahal izanen ditu, haien iritzia behar dela uste baldin badu. Horien esku-hartzea informazioa eman beharreko gaira edo gaietara mugatuko da. Betiere, Gobernu Kontseiluko kideei aplikatzen zaien isiltasun betebeharra ere aplikatu beharko zaie.

4. artikulua. Gobernu Kontseiluaren idazkari-tza

1. Gobernu Kontseiluko bilerei buruzko akta bat eginen da; bertan, gutxienez ere, denborari, lekuari eta bertaratutakoei, erabakitakoei eta hartutako erabakiei buruzko gainerako inguruabarrak jaso beharko dira.

2. Lehendakariaren foru dekretu baten bidez, Gobernu Kontseiluko idazkari arituko den kontseilaria, haren ordezkapenen araubidea eta haren laguntzaileak zein diren ezarriko da.

5. artikulua. Gobernuaren kargu-uztea.

1. Lehendakariaren kargu-uzteak Gobernuaren kargu-uztea ekarriko du.

2. Kargua uzten duen Gobernuak jardunean jarraitu beharko du hurrengo Gobernuak postua hartu arte, foru lege honetan ezarritako mugekin.

3. Jarduneko Gobernuak erraztu egin beharko du Gobernu berriaren prestakuntza prozesuaren

eta hari botereak eskualdatzeko prozesuaren garapen normala.

4. Jarduneko Gobernuak ezin izanen du bere kudeaketa arrunta gaindituko duen erabakirik hartu, alde batera utzita presako beharrianen kasuak; horrenbestez, ezin izanen du Parlamentuak emandako legegintza-eskuordetzea erabili, ez eta Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua onetsi.

II. KAPITULUA

Gobernu Kontseiluaren atribuzioak

6. artikulua. Gobernu Kontseiluaren atribuzioak

Gobernu Kontseiluari dagokio:

a) Foru Komunitatearen politika orokorra ezarzea, lehendakariak definitutako programa politikoarekin bat, eta Administrazioa zuzentzea.

b) Legegintza ekimena, foru lege proiektuak onetsiz eta tramitatzekeo Parlamentura eramanez, eta foru lege proiektu horiek, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren arabera, erretiratzea erabakitzea ere.

c) Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua onestea.

d) Aurrekontu gastuen gehitzea edo aurrekontu dirusarreraren gutxitzea dakarten zuzenketa edo foru lege proposamenak tramitatzekeo onartzeko adostasuna ematea edo ukatzea.

e) Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko proiektuak onestea eta Parlamentuak eztabaida ditzan aurkeztea.

f) Legegintzako foru dekretuak onestea, Parlamentuak horretarako eskuordetuta.

g) Nafarroako Kontseiluak irizpena eman ondoren, foru legeak garatu eta exekutatzeko erregelamenduak onestea, bai eta dagozkion gainerako erregelamendu-xedapenak ematea ere.

h) Aurrekontu gastuen gehitzea edo aurrekontu dirusarreraren gutxitzea dakarten foru lege proposamenak tramitatzekeo onartzeko adostasuna ematea edo ukatzea.

i) Lehendakariak Nafarroako Parlamentuari aurkezteko proposatu duen konfiantza-arazoari buruz eztabaidatzea.

j) Konstituziokontraktasuneko errekurtsioak aurkeztea eta Konstituzio Auzitegian Nafarroako Gobernuari dagozkion gainerako jarduketak egitea.

k) Nafarroako Parlamentuari lehendakariaren ezgaitzea proposatzea, foru lege honetako 6.1.e) artikuluan ezarritako moduan.

l) Nafarroako Parlamentuari bilkura berezia egin dezan eskatzea.

m) Nafarroako ondarea administratzea.

n) Nafarroako Parlamentuak horretarako baimena eman ondoren, zor publikoa jaulkitzea, abalak edo bermeak eratztea eta kreditua hartzea.

ñ) Parlamentuak horretarako baimena eman ondoren, hitzarmenak eta lankidetzak akordioak egitea Estatuarekin eta autonomia erkidegoekin.

o) Foru dekretu bidez Foru Komunitateko Administrazioiko goi karguak eta kide anitzeko organoetako ordezkariak izendatzea eta kargugabetzea.

p) Nazioarteko itun eta hitzarmenak eta egintza normatiboak Nafarroako lurraldean betearazteko behar diren neurriak hartzea, Foru Komunitatearen eskumenei dagokien neurrian.

q) Ohore eta goraiamenak ematea, berariazko arauari jarraituz.

r) Akzio judizialez baliatzea eta haiei uztea, aplikatzekoak diren berariazko legeen arabera.

s) Foruzaingoaren aginte gorena.

t) Xedapen indardunek ematen dizkieten gainerako ahalmen guztiez baliatzea.

7. artikulua. Batzorde eskuordetuak

1. Nafarroako Gobernuak gai bereziei buruzko batzorde eskuordetuak ezarri ahal izanen ditu; lehendakariak edo lehendakariordeak eta bi edo kontseilari gehiagok osatuko dituzte.

2. Batzorde eskuordetua sortzeko foru dekretuan, haren osaketa eta haren lehendakaritza eta idazkaritza ezarri beharko dira, bai eta haiei esleitzen zaizkien eginkizunak ere. Betiere, batzordeen funtzionamendurako araubide orokorra Gobernu Kontseilurako ezarritako irizpideei egokitu zaie.

III. KAPITULUA

Gobernuaren laguntza- eta lankidetzak-organak

8. artikulua. Idazkari teknikoaren batzordea

Gobernuak Idazkari Teknikoen Batzordea sortu ahal izanen du: Gobernu Kontseiluaren eztabaida eta erabakiak prestatzeko ardura bere gain hartuko duen kide anitzeko organoa izanen da. Haren funtzionamendu eta osaketa eta haren

lehendakaritza eta idazkaritza foru dekretu bidez arautuko dira.

9. artikulua. Kabineteak

1. Kabineteak Gobernuo kideei laguntza politiko eta tekniko emateko organoak dira. Konfiantzako eta laguntza kalifikatuko lanak egiten dituzte, baina inoiz ere ezin izanen dute Foru Komunitatearen Administrazioako organoei dagozkien egintzarik exekutatu ez eta haien lanik egin ere.

2. Kabineteetako kideak behin-behineko langileak dira, eginkizun publikoari buruzko legeek ezarritakoari jarraituz.

10. artikulua. Foru Komunitatearen mandataria

1. Mandataria ospe handiko pertsonak dira, aldi baterako Foru Komunitatea ordezkatzeko eginkizun zehatzetan aritzen direnak, zehaztutako eremu eta foroetan.

2. Haien izendatzeko foru dekretuak haien ordezkartzako agintaldiaren iraupena eta norainoko zehatza zehaztu beharko ditu.

3. Mandataria behin-behineko langileak dira, eginkizun publikoari buruzko legeek ezarritakoari jarraituz.

11. artikulua. Gobernuo eleduna

Lehendakariak Gobernuo eledun bat izendatu ahal izanen du; izendatutakoa Gobernuo kidea ez bada, zuzendari nagusi baten maila izanen du eta Gobernu Kontseiluaren bileretara joan ahal izanen da. Betiere, bilera horietako eztabaidak isilean gordetzeko betebeharra edukiko du.

II. TITULUA

Nafarroako Gobernuo lehendakaria

I. KAPITULUA

Hautatzea eta estatutu pertsonala

12. artikulua. Lehendakaria

1. Nafarroako Gobernuo lehendakariak bere ditu Foru Komunitatearen ordezkartza gorena eta Estatuak Nafarroan duen ordezkartza arrunta. Halaber, Gobernuo burua da, haren egintzak zuzentzen ditu eta bere kideen eginkizunak koordinatzen ditu, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoan eta foru lege honetan ezarritakoari jarraituz.

2. Lehendakariak jaun edo andre txit garaiaren tratamendua izanen du.

13. artikulua. Hautatzea eta izendatzea

1. Lehendakaria Nafarroako Parlamentuak izendatuko du bere kideen artean, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 29. artikuluan eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan araututako prozedura erabiliz, eta Erregeak izendatuko du.

2. Bost eguneko epean, izendapenari buruzko errege dekretua Estatu Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik kontatzen hasita –Nafarroako Aldizkari Ofizialean ere argitaratu ahal izanen da–, izendatutako lehendakariak kargua hartuko du. Publikoa eta hotsandikoa izanen da kargua hartzeko egintza, eta bertan lehendakariak Nafarroako Foru Eraentza errespetatu, mantendu eta hobetuko duela, Konstituzioari eta legeei men eginen diela eta karguko betebeharrak leialki beteko dituela zin egin edo hitz emanen du.

14. artikulua. Bateriaezintasunak

1. Lehendakari kargua beste edozein kargu publikorekin eta edozein jardueraren profesional, merkataritzako edo industrialekin ere bateraezina da. Halaber, Nafarroako Foru Komunitateko Gobernuo kideen eta goi karguen bateraezintasunei buruzko lege berariazkoa izanen zaio aplikatzeko.

2. Betiere, lehendakari kargua ondoko jarduerekin izanen da bateragarria:

a) Parlamentari izateagatik dagozkion eginkizunak eta lehendakaria izatearen ondorioz erakunde, organismo nahiz izaera publikoko entitateetan izan ditzakeen ordezkartza eginkizunak garatzea.

b) Ondare pertsonala eta familiarra kudeatzeko jarduerak.

c) Alderdi politiko bateko zuzendaritza edo ordezkartza karguetan aritzea.

d) Izaera sozial, laguntzako edo irabazi asmorik gabeko entitate, organismo edo erakundeetan ohorezko karguetan aritzea.

3. Aurreko idatz-zatiko a), c) eta d) letretan aipaturiko jardueretako batean arituz gero, lehendakariak ez du Nafarroako Aurrekontu Orokorretan berariaz seinalaturiko ordainsariez edo diru ordainez besterik jasoko.

15. artikulua. Foru prozesala

Lehendakaria, bere agintaldian, ezin izanen da ez atxilotu ez atxiki ere delitu-egintzengatik, delitu gori-gori batengatik ez bada; betiere, Auzitegi Gorenari dagokio hura erruztatu, espetxeratu eta epaitzea.

16. artikulua. Kargu-uztea

1. Lehendakariak honako arrazoi hauetako batengatik utziko du kargua:

- a) Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak egitea.
- b) Zentsura mozioa onestea.
- c) Konfiantza-arazoan ezezkoa ematea.
- d) Parlamentuko lehendakariari idatziz jakinarazitako dimisioa.
- e) Karguan aritzea eragozten dion ezgaitasun fisiko edo psikiko iraunkorra.
- f) Epaitegien epai irmoa, karguan aritzeko ezgaitzen duena.
- g) Nafarroako Parlamentuko kide izaera galtea.

2. Artikulu honetako 1. idatz-zatiko a), b), c) eta d) letretan aurreikusitakoak emanez gero, lehendakariak karguan jarraitu beharko du harik eta haren ordezkioak kargua hartu arte.

3. Artikulu honetako 1. idatz-zatiko e) lettran aipatzen den ezgaitasuna Gobernu Kontseiluak antzeman beharko du, zio eta guzti, gutxienez kide guztien bostetik hiruk hala erabakita. Gero Parlamentuari proposatuko zaio, eta hark aintzat hartuz gero, gehiengo osoz deklaratu beharko du ezgaitasuna.

4. Lehendakariak, kargua utzi ondoren, errege-lamendu bidez ezartzen diren tratamendu eta ohoretarako, segurtasun pertsonalaren babeserako eta diru prestaziorako eskubidea izanen du.

17. artikulua. Kargua hutsik egotea

1. Lehendakari kargua hutsik gelditzen bada, aurreko artikuluko 1. idatz-zatiko e), f) eta g) letretan ezarritako arrazoi batengatik edo heriotza kasuan, harik eta lehendakari berriak kargua hartu arte, lehendakariordea arituko da Gobernu-buru, behin-behinekoz. Lehendakariordek ez badago, hurrenez hurren, Gobernu Kontseiluko Idazkaritzan ari den kontseilariak eta karguan antzintasun handiena duen kontseilariak beteko dute kargua; antzintasun berdina izanez gero, zaharrenak beteko du lehendakari kargua.

2. Lehendakaria behin-behinekoz ordeztzen duenak haren ohore eta tratamendu beretarako eskubidea izanen du, eta foru lege honek eta antolamendu juridikoaren gainerakoek lehendakariari ematen dizkioten eginkizun eta eskumenak izanen ditu; alabaina, ezin izanen du konfiantza-arazoa planteatu, ez eta zentsura mozio baten

helburu izan edo Gobernu kideak kargutik kendu ere.

3. Lehendakariaren kargu-uztea aurreko artikuluko 1. idatz-zatiko d), e), f) eta g) letretan ezarritako arrazoiaren batengatik edo heriotza kasuan gertatzen denean, Parlamentuko lehendakariak, gehienez ere bi hilabeteko epean, biltzarra bilduko du lehendakari berria hautatzeko.

18. artikulua. Aldi baterako ordezkioak eta ez-egoteak

1. Lehendakaria ez badago, gaixorik badago edo aldi baterako bestelako eragozpenen bat baldin badu, lehendakariordeak ordeztuko du; lehendakariordek ez badago, lehendakariak berriaz izendaturiko Gobernu kideak ordeztuko du. Berriazko izendapenik izan ezean, dagokion kontseilariak ordeztuko du lehendakaria, lehendakari buruzko foru dekretuan departamentu-erako ezarritako hurrenkeran.

2. Lehendakariaren ordezkioa, artikulu honetan aurreikusitako kasuetan, eguneroko lana egiteko behar diren atribuzioez baizik ezin izanen da baliatu.

19. artikulua. Nafarroako Foru Komunitatearen ordezkariak

Lehendakari kargua hutsik dagoen bitartean edo lehendakaria aldi baterako ordeztzen denean, Gobernu burutzan norik ordeztzen duen begiratu gabe, Parlamentuko lehendakaria izanen da Nafarroako Foru Komunitateko ordezkaria.

II. KAPITULUA

Lehendakariaren atribuzioak

20. artikulua. Ordezkaritzako atribuzioak

1. Ondokoak dagozkio lehendakariari, Foru Komunitateko ordezkari gorena den aldetik.

a) Nafarroako Foru Komunitateko ordezkaria izatea Estatuko erakundeekiko eta gainerako administrazio publikoekiko harremanetan.

b) Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak deitzea, legeak araututako moduan.

2. Lehendakariari dagokio, Estatuak Foru Komunitatean duen ordezkari arrunta den aldetik, Erregearen izenean foru legeak eta legegintzako foru dekretuak aldarrikatzea eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Estatuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agintzea, hain zuzen ere haiek onetsi eta hamabost eguneko epean.

21. artikulua. Zuzendaritzako atribuzioak

Ondokoak dagozkie lehendakariari, Gobernu-ko zuzendaritzaren arduraduna den aldetik:

a) Gobernu ekintzaren lerro nagusiak ezartzea, bere programa politikoaren arabera, eta Gobernuko kideei behar diren jarraibideak ematea.

b) Zuzendaritza politikoaren eta administrazio-koaren batasunari eustea eta departamentuetako ekintzak koordinatzea.

c) Departamentuak sortu eta deuseztatzea, eta haien izenak eta eskumenak ezartzea.

d) Kontseilariak eta lehendakariordea izendatzea eta kargutik kentzea.

e) Bere kabineteko langileak izendatzea eta kargutik kentzea.

f) Departamentuen arteko atribuzio auziak ebaztea.

g) Foru Dekretu bidez, kontseilarien eta lehendakariordearen ordezkioak izendatzea, haiek ez badaude, gaixorik badaude edo nahitaez abstenitu behar badute.

h) Departamentu bateko titularitatea Gobernu-ko beste kide baten esku uztea, aldi baterako, kargu hori hutsik baldin badago.

i) Estatuarekin eta autonomia erkidegoekin lankidetzat hitzarmen eta akordioak sinatzea.

j) Gobernu Kontseiluaren bileretarako dei egitea, haren gai-zerrenda finkatzea, haien buru aritzea, haiek etetea eta bukatutzat ematea eta gertatzen diren eztabaidak zuzentzea.

k) Konfiantza-arazoa planteatzea Nafarroako Parlamentuan, Gobernu Kontseiluak horri buruz eztabaidatu ondoren.

l) Gobernuak onetsitako foru dekretuak sinatzea eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agintzea.

m) Gobernu Kontseiluaren erabakiak sinatzea.

n) Nafarroako Kontseiluari irizpena eskatzea, lege indardunetan ezarritako kasuetan.

o) Gobernu Kontseiluari konstituziokontrakotasun errekurtsioa aurkezteko proposatzea, horri buruz eztabaidatu eta erabaki dezan; halaber, Konstituzio Auzitegian eskumen gatazkak planteatzea.

p) Akzio judizial eta administrazio-akzioez baliatzea, presako kasuetan; betiere, horren berri

eman beharko dio Gobernu Kontseiluari egiten duen aurreneko bilkuran.

q) Nafarroako Auzitegi Nagusiko lehendakariaren izendapena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

r) Antolamendu juridikoak esleitzen dizkion gainerako eginkizunak betetzea.

22. artikulua. Eskumenak esku-ordetzea

Lehendakariak lehendakariordeari edo, kasu bada, kontseilari bati eskuordetu ahal izanen dizkio 21. artikuluko b), f), i), n) eta p) letretan ezarritako eskumenak.

III. KAPITULUA**Erantzukizuna eta Parlamentuaren kontrola****23. artikulua.** Erantzukizun politikoa

1. Lehendakariak erantzukizun politikoa du Parlamentuaren aurrean; hori, halere, ez da oztopoa Gobernuak izan dezakeen erantzukizun solidarioa eta Gobernuko kideetako bakoitzak bere kudeaketarengatik izan dezakeen zuzeneko erantzukizuna eskatzeko.

2. Lehendakariak lehendakariordearengan edo kontseilari batengan eginkizun exekutiboak eskuordetzeak ez du Parlamentuaren aurrean duen erantzukizun politikoa gabetuko.

24. artikulua. Zentsura-mozioa eta konfiantza-arazoa

Konfiantza-arazoa planteatzeko eta zentsura-mozioa aurkezteko Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoa eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduak ezarritakoari jarraitu beharko zaio.

III. TITULUA**Lehendakariordea eta kontseilariak****I. KAPITULUA**
Lehendakariordea**25. artikulua.** Lehendakariordea

1. Lehendakariordeari dagokio Gobernu-ko lehendakariak esleitu edo eskuordetu dizkion eginkizunak betetzea. Halaber, lehendakariordeari dagokio lehendakaria ordezteko foru lege honetan ezarritako kasuetan.

2. Lehendakariordea, lehendakariak hala erabakitzen badu, departamentu bateko titularra ere izan ahalko da.

3. Lehendakariordearen estatutu pertsonala, izendapena eta kargu-uztea foru lege honetan

kontseilariari buruz esaten denaren arabera izanen dira.

II. KAPITULUA Kontseilariak

26. artikulua. Kontseilariak

1. Kontseilariak Gobernu kideak eta esleitu-ta duten departamentuko titularrak izanen dira. Hala eta guztiz ere, departamenturik gabeko kontseilariak ere egon ahal izanen da.

2. Kontseilaria izateko, honako baldintzak bete behar dira: Espainiako naziotasuna edukitzea, adinduna izatea, sufragio aktibo eta pasiborako eskubideak edukitzea eta epai irmoz kargu edo eginkizun publikoetan aritzeko ezgaitua ez egotea.

3. Kontseilariak txit garaia tratamendua izanen dute, eta karguarengatik dagozkien ohoreak jasotzeko eskubidea izanen dute.

27. artikulua. Izendapena

1. Kontseilariak Gobernu lehendakariak libreki izendatu eta kargutik kenduko ditu, eta kargua hartzeko unean hasiko dute agintaldia. Kargua hartzeko, lehendakariak erabili beharreko zin egite edo hitz ematearen antzeko formula erabiltzeko dute kontseilariak.

2. Kontseilariak izendatzeko foru dekretuan, kontseilari bakoitza zein departamentutako titular izanen den adierazi beharko da. Departamenturik gabeko lehendakariordearen edo kontseilarien kasuan, esleitzen zaizkien eginkizunen arloa zehaztu beharko du izendapenak; sekula ez dute inongo erantzukizun exekutiborik izanen.

3. Izendapenei buruzko foru dekretuak Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko dira.

28. artikulua. Kargu-uztea

1. Kontseilariak ondoko arrazoiren batengatik utziko dute kargua:

a) Lehendakariaren kargu-uztea edo hiltzea; halere, karguan eginkizunetan jarraitu beharko dute Gobernu kide berriek karguak hartu arte.

b) Bateriaezintasun deklaratu eta argitaratua, aplikatzekoak diren lege berariazkoetan ezarritakoaren arabera.

c) Karguan aritzeko ezintasun eta ezgaitasuna, epai irmoz deklaratu.

d) Lehendakariak onartutako dimisioa.

e) Lehendakariak hala erabakita.

2. Kargu-uzteak behar den foru dekretua Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik aurrera izanen du indarra.

29. artikulua. Kargu hutsak eta ordezkapenak

1. Kontseilari kargurik hutsik gelditzen bada, titular berriak kargua hartzen ez duen artean, lehendakariak, aldi baterako, Gobernu kide bati enkargatuko dizkio departamentu horretako eginkizunak.

2. Kontseilari bat kanpoan badago, gaixorik badago edo aldi baterako bestelako eragozpenik baldin badu, foru dekretu bidez izendatzen duen kontseilariak ordeztuko du lehendakariak.

3. Kontseilarien hutsaldiei eta haiek ordezkatzeari buruzko foru dekretuak Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko dira.

30. artikulua. Bateriaezintasunak

Foru lege honetan lehendakariarentzako adierazitako bateriaezintasunen araubide bera izanen dute kontseilariak; betiere, legeetan Nafarroako Foru Komunitateko Gobernu kideen eta goi karguen bateriaezintasunei buruz ezarritakoa bete beharko da.

31. artikulua. Foru prozesala

Gobernu kideak, beren agintaldian, ezin izanen dira ez atxilotu ez atxiki ere delitu-egintzengatik, delitu gorria ez bada; betiere, Auzitegi Gorenari dagokio haien erruztatzea, espetxeraztea eta epaitzea.

32. artikulua. Erantzukizuna.

Gobernuak Nafarroako Parlamentuan duen erantzukizun politiko solidarioa gorabehera, lehendakariordeak eta kontseilariak zuzenean erantzun beharko dute beren kudeaketa-lanengatik.

33. artikulua. Kontseilarien atribuzioak

Honakoak dagozkie kontseilariari:

a) Gobernu egintzetan aritzea, bere erantzukizuna den arloan.

b) Departamentuko gaiei buruzko foru lege aurreproiektuak, aurrekontuen aurreproiektuak eta foru dekretu proiektuak prestatu eta Gobernuari aurkeztea.

c) Departamentuaren berezko gaiei buruzko foru aginduak ematea.

d) Jarduketa programak egitea eta Departamentuaren helburuak finkatzea, Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko aurreproiektua prestatzeko.

e) Gobernu Kontseiluari departamentuaren mendeko goi karguak izendatzeko eta kargutik kentzeko proposamena egitea.

f) Bere kabinetea eta departamentuko dagoz-kion langileak izendatu eta kargutik kentzea.

g) Departamentuko langileen buru aritzea, zerbitzuak koordinatzea eta barneko eskumen arazoak ebaztea.

h) Lege indardunek esleitzen dizkieten eskumen guztiak.

34. artikulua. Gobernuak Parlamentuan duen ordezkartza.

1. Lehendakariari dagokio Gobernuak Nafarroako Parlamentuan duen ordezkartza.

2. Hala eta guztiz ere, Gobernuaren eta Parlamentuaren arteko gaien aztertze arrunta Gobernu Kontseiluko idazkariaren bitartez bideratu beharko da.

IV. TITULUA

Gobernuaren legegintza-ekimena eta araugintza-ahalmenak

I. KAPITULUA

Legegintza-ekimena

35. artikulua. Legegintza-ekimena

Gobernuak Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoan jasotako legegintza-ekimena darabil, foru lege proiektuak prestatu, onetsi eta Nafarroako Parlamentura igorritz.

36. artikulua. Ekimenaren prozedura

1. Foru Lege proiektuak prestatzeko prozedura, legez aginduzkoak diren tramiteak ezertan kendu gabe, departamentu eskuduneari hasiko da, aurreproiektu proposamen baten testuarekin; hari egoki jotzen diren azterlan, txosten eta dokumentuak erantsi beharko zaizkio. Betiere, aurreproiektuak idazkaritza teknikoaren txostena eduki beharko du aldean.

2. Kontseilari eskudunak aurreproiektua Gobernu Kontseiluan aurkeztuko du, hark ondoko tramiteei buruz eta, bereziki, komenigarri jotzen diren aholku, irizpen eta txostenei buruz erabaki dezan; behin horiek egin ondoren, foru lege proiektu gisa onetsiko du. Onetsitako testuak zioen azalpen bat eduki beharko du.

3. Behin foru lege proiektua onetsi ondoren, Gobernuak hura Parlamentura igortzea erabakiko du; harekin batera, oroit-idazki bat eta hari buruz-

ko erabakia hartzeko behar diren aurrekariak ere igorriko ditu.

II. KAPITULUA

Legegintzako foru dekretuak

37. artikulua. Legegintzako foru dekretuak

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoan aurreikusitako kasuetan, Gobernuak foru lege mailako arauak eman ahalko ditu, hain zuzen ere legegintzako foru dekretuak. Haien prestatzeko, gutxienez ere, foru lege honetako 42 eta 46. artikuluetan ezarritako tramiteak bete beharko dira.

III. KAPITULUA

Araugintza-ahalmena

38. artikulua. Araugintza-ahalmenaren titularrak

1. Gobernuari dagokio Foru Komunitateko Administrazioaren araugintza-ahalmena.

2. Hala eta guztiz ere, kontseilariak erregelamenduzko xedapenak eman ahal izanen dituzte departamentuak bere dituen gaietan, ondoko kasuetan:

a) Erregelamendu horien xedea departamentuko zerbitzuen antolamendua eta funtzionamendua arautzea denean.

b) Gobernuaren foru lege batek edo foru dekretu batek horretarako baimena ematen duenean.

3. Foru Komunitateko lehendakariak ondoko kasuetan baizik ezin izanen du erregelamendurik eman:

a) Departamentuak sortu eta deuseztatzea, haien izenak eta eskumenak aldatzea barne.

b) Kontseilarien eta Gobernu Kontseiluko idazkaritzaren ordezkapenen araubidea finkatzea.

c) Foru legearen maila daukan arau batean aurreikusitako beste edozein.

39. artikulua. Erregelamendu mailako xedapenak. Forma.

1. Xedapen orokorreko foru dekretuaren forma hartuko dute, baldin eta Gobernuak edo lehendakariak onesten baditu, edo foru aginduaren forma, kontseilariak onesten badituzte.

2. Foru dekretuak lehendakariak edo lehendakariak eta kasuan kasuko gaien eskudunak diren kontseilariak sinatuko dituzte.

3. Foru aginduak kontseilari eskudunak sinatuko ditu. Departamentu bat baino gehiago ukitzen dutenak, Gobernu Kontseiluaren idazkaritzaren ardura duen kontseilariak sinatuko ditu.

4. Erregelamenduek aitzinsolas bat eduki beharko dute; hartan, arautzen denaren xedea eta horretarako gaitzen duen arau-markoa baizik ez da aipatuko.

40. artikulua. Arauen hierarkia

Administrazio-xedapenak ondoko hierarkiaren arabekoak izanen dira:

a) Lehenbizi, Gobernu Kontseiluak edo lehen-dakariak onetsitako foru dekretuak.

b) Bigarrenik, kontseilarien foru aginduak.

41. artikulua. Eraginkortasuna

Eragin juridikoak izateko, administrazio-xedapenak osorik argitaratu behar dira Nafarroako Aldizkari Ofizialean. Argitaratu eta hogeie egunetara sartuko dira indarrean, salbu eta bestelako epe bat ezartzen denean.

42. artikulua. Prestatzeko prozeduraren hasiera

1. Administrazio-xedapenak prestatzea kontseilari eskudunak hasiko du; hark izendatu beharko du prozeduraren organo erantzulea zein izanen den. Tramitaziorako, oroit-idazki bat eta, kasua bada, azterlan ekonomiko bat erantsi beharko zaizkio aurreproiektuari.

2. Oroit-idazkian erregulazioaren egokitasuna eta proposatzen diren neurriak helburuen arabekoak direla justifikatuko da. Halaber, proposamena sarturik dagoen marko normatiboa adierazi beharko da eta, betiere, ukituriko xedapenen zerrenda bat eta gaiari buruz aurretik indarra izan duten xedapenen taula bat erantsi beharko dira.

3. Zerbitzu berriak sortu edo daudenak aldatzeko kasuetan, antolamendu berriaren kostuari eta finantzaketari buruzko azterlan-proposamen bat erantsi beharko da.

4. Prozedura hau ez zaie aplikatuko 38. artikuluko 3. idatz-zatiko a) eta b) letretan araututako xedapenei.

43. artikulua. Entzunaldia eta parte hartzea

1. Betiere, proiektuari buruzko entzunaldia eman beharko zaie herritarrei, zuzenean nahiz haiek biltzeko edo ordezkatzeko legez aitorturiko entitateen bitartez, baldin eta entitate horien helburuak arautzen den gaiarekin loturik badaude.

2. Ez da entzunaldia exijituko Gobernuaren, Foru Komunitateko Administrazioaren edo haren mendeko entitate publikoen antolamendua arautzen duten xedapenen proiektuetan. Halaber, tramite hori alde batera utzi ahal izanen da presako izaerak edo interes publikorako arrazoi larriak tar-tean daudenean, kontseilari eskudunak hala iriztita; halakorik egonez gero, espedientean agerraziko da.

3. Entzunaldirako epea xedapenaren izaerari egokituko zaio eta ez da hamabost egun baino laburragoa izanen. Justifikatutako arrazoiengatik eta behar bezala arrazoitutako erabaki edo ebazpenez, epe hori zazpi egunetara murriztu ahal izanen da.

44. artikulua. Informazio publikoa

Xedapenaren izaeraz edo Gobernu Kontseiluaren nahiz kontseilari eskudunaren erabakiz hala behar denean, proiektua gutxienez ere hamabost egunez jarriko da jendaurrean.

45. artikulua. Txostenak eta irizpenak

Xedapen proiektuetarako, nahitaez, ondoko txosten eta irizpenak eskatu beharko dira:

a) Zerbitzu juridiko eskudunen txostena.

b) Idazkaritza tekniko eskudunaren txostena; hark, gutxienez ere, jarraitutako prozeduraren zuzentasuna eta aurkeztutako alegazioei buruzko balorazioa bildu beharko ditu.

c) Nafarroako Kontseiluaren eta kontsulta eta aholkularitzako gainerako organoen irizpenak, haiei buruzko legeetan aurreikusitako kasuetan.

46. artikulua. Espedientea

Atal honetan aurreikusitako tramiteak dokumentaturik geratu beharko dira espedientean; espedientea prozedura hasterakoan zehazten den organoaren ardura izanen da.

V. TITULUA

Gobernuaren egintzak kontrolatzea

47. artikulua. Kontrol motak.

1. Nafarroako Gobernuak Konstituzioaren, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetze-ari buruzko Lege Organikoaren eta gainerako antolamendu juridikoaren arabera jardunen du.

2. Gobernuaren jardunaren gaineko kontrol politikoa Nafarroako Parlamentuak eginen du, foru lege honen eta Biltzarreko Erregelamenduaren arabera.

3. Gobernuaren egintzak administrazio-bidean edo bide juridikzionaletan aurkatu ahal izanen dira, aplikatzekoak diren legeei jarraituz

VI. TITULUA

Administrazioaren antolamendua eta funtzionamendua

I. KAPITULUA

Administrazioa eta haren organoak

48. artikulua. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa

1. Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioak, Nafarroako Gobernuaren zuzendaritza-pean, objektibotasunez zerbitzatuko du interes orokorren alde, legeek esleitzen dizkion eginkizunak garatuz.

2. Foru Komunitateko Administrazioak, hierarkikoki antolaturiko organoez osaturik, nortasun juridiko bakarrarekin jarduten du bere helburuak betetzeko.

3. Foru lege honetako VIII. tituluaren arauturiko nortasun juridiko berekiko erakunde publikoek, deszentralizazio funtzionalaren ondorioz Foru Komunitateko Administrazioaren esku utzitako exekuzio- edo kudeaketa- jarduerak egitea izanen dute helburu, bai administrazio-arloan eta bai arlo ekonomikoan ere; erakunde publiko horiek departamentu bati atxikiko zaizkio, kontrola ditzan.

49. artikulua. Antolamenduko eta funtzionamenduko printzipioak

Foru Komunitateko Administrazioa ondoko printzipioen arabera antolatuko da eta jardunen du:

1. Antolamenduzkoak.

a) Hierarkia.

b) Deszentralizazio funtzionala.

c) Deskontzentrazioa.

d) Ekonomia, nahikotasuna eta baliabideak helburu instituzionaleri hertsiki egokitzea.

e) Sinpletasuna, argitasuna eta herritarrenganako hurbiltasuna, haien konfiantza erdiesteko.

f) Koordinazioa.

2. Funtzionamenduzkoak.

a) Legezketasun printzipioarekiko erabateko errespetua.

b) Finkaturiko helburuak betetzeko eraginkortasuna.

c) Baliabide publikoak esleitu eta erabiltzeko efizientzia.

d) Helburuen programazioa eta garapena eta kudeaketaren eta emaitzen gaineko kontrola.

e) Kudeaketa publikoarengatiko erantzukizuna.

f) Administrazio-prozeduren eta kudeaketa jarduketaren materialen arrazoizkotasuna eta arintasuna.

g) Herritarrei zerbitzu eraginkorra ematea.

h) Administrazioaren jarduketaren objektibotasuna eta gardentasuna.

i) Gainerako Administrazio publikoekiko kooperazioa eta koordinazioa.

50. artikulua. Herritarrei zerbitzua emateko printzipioa

1. Foru Komunitatearen Administrazioak ondoko bermatu beharko dizkie herritarrei:

a) Beren eskubideen eraginkortasuna, Administrazioarekin dauzkaten harremanetan.

b) Prozedura, zerbitzu eta prestazio publikoen etengabeko hobekuntza, Gobernuak finkaturiko politiken arabera eta erabil daitezkeen baliabideak kontuan harturik; hori dela eta, zerbitzu publikoek ematen dituzten prestazioak, haien edukiak eta dagozkien kalitate estandarrak finkatuko dira.

2. Foru Komunitateko Administrazioak, bere jarduera garatu eta administrazio-egoitzak antolatzeko moduan, ondokoak bermatu beharko dizkie herritarrei:

a) Beren arazoak konpondu ahal izatea, administrazio-agirien erredakzio formalean laguntza jaso ahal izatea eta interes orokorreko informazioa telefono bidez eta era informatiko eta telematikoaz hartzea.

b) Administrazio egoitzen funtzionamenduari buruzko erreklamazioak aurkeztu ahal izatea, administrazio-errekurtsoak izan gabe.

3. Departamentu guztiek etengabe gaurkoturik eta herritarren eskura edukiko dute, kasuan kasuko informazio guneetan, beraien eta beren mendeko erakunde publikoen antolamenduari buruzko eskema eta, bai eta dagokien eskumenen esparruan aplikatzekoak diren prestazioei buruzko administrazio prozedurei, zerbitzuei eta prestazioei buruzko gidaliburuak ere.

51. artikulua. Administrazio organoak

1. Administrazio organoak Administrazioaren egituraren oinarriko elementuak dira, eta dauzkaten eginkizunengatik burutza komun batez, dauz-

katen eskumenez eta haiek aurrera eramateko esleituriko gauza-baliabideez elkarrekin loturiko langileak biltzen dituzte. Haien eskumenek Foru Komunitatearen lurralde guztia hartzen dute, salbu eta haiek sortzeko arauetan lurralde-eremu murriztagoa esleitzen bazaie.

2. Ondokoak dira Foru Komunitateko Administrazioaren organo gorenak: Gobernuak, lehendakaria eta kontseilariak. Foru Komunitateko gainerako organoak lehendakariaren edo kasuan kasuko kontseilariaren mende egonen dira.

52. artikulua. Oinarrizko organoak

1. Departamentuak Foru Komunitateko Administrazioaren oinarrizko organoak dira; beren eskumeneko arloetan, foru lege honetan aitortzen zaizkion atribuzioez baliatuko dituen kontseilari baten zuzendaritzapean egonen dira.

2. Departamentu bakoitzak, normalean, ondoko egitura izanen du:

a) Zuzendaritza nagusiak: haien buru zuzendari nagusi bat egonen da, hartara bilduriko zerbitzuen burutza nagusia bere gain hartuko duena. Zuzendari nagusiak Gobernuak libreki izendatu eta kargutik kenduko ditu, kasuan kasuko kontseilariak proposaturik, eta Gobernuak ezarritako ordainsariak jasoko dituzte, betiere aurrekontuan ezarritako diruaren arabera.

b) Zerbitzuak: izaera homogeenoko eskumen multzoak dauzkaten unitate organikoak dira; haien buru zerbitzuburu bat egonen da. Zerbitzuburuak Gobernuak izendatu eta kargutik kenduko ditu, kontseilariak proposatuta. Izendapenak libreki egiten dira, Foru Komunitateko Administrazioako diren edo hari atxikirik dauden funtzionarioen artean.

c) Atalak: funtzionamenduko barne-organok; haien eskumenek sarturik dauden zerbitzuari dagozkion eginkizunen arlo bat biltzen dute. Atalburuak Foru Komunitateko Administrazioako diren edo hari atxikirik dauden funtzionarioak izanen dira; sei urtetarako beteko dituzte karguak, merezimendu lehiaketarako deialdia eginda.

d) Bulegoak: sarturik dauden ataleko edo zerbitzuko jardueraren arloko espedienteak eta berezko lanen instrukzio eta tramitazio lanak egiten dituzte. Bulegoburu karguak Foru Komunitateko Administrazioako diren edo hari atxikirik dauden funtzionarioek beteko dituzte, merezimendu lehiaketarako deialdia eginda.

3. Sortzeko arauan behar bezala arrazoitutako eraginkortasun arrazoiengatik, departamentuen barruan aurreko idatz-zatian aipaturiko organoak

bestelako batzuk sortu ahal izanen dira. Betiere, sortzeko arauak mendekotasun hierarkikoa eta burutza aurreko idatz-zatian araututako batekiko parekotasuna ezarri beharko ditu.

4. Departamentu bakoitzak idazkaritza tekniko bat edukiko du, koordinazio, laguntza tekniko eta juridikoko eta departamentuaren egintzen erregistro eta ziurtapeneko organo gisa. Idazkaritza teknikoaren titularrek zerbitzuko zuzendarien araubide bera izanen dute, baina nahitaez goi mailako titulazioa duten funtzionarioen artean izendatu beharko dira.

5. Departamentu bakoitzean, kide anitzeko organo goren moduan, departamentuko kontseilu bat egonen da, zuzendari nagusiek, zerbitzuburuak eta haien pareko organoen titularrek osaturik: kontseilu horren burua kontseilaria izanen da eta idazkari lanak idazkari teknikoak beteko ditu. Departamentu Kontseilua urtean bi aldiz bilduko da gutxienez, eta ondoko eginkizunak beteko ditu:

a) Kontseilariari bere eginkizunetan aholkua ematea.

b) Departamentuaren aurrekontuen aurreproiektuari buruz iritzia ematea.

c) Urteko jarduketa planaren proiektuari buruz iritzia ematea.

d) Jarduketan urteko oroit-idazkiaren proiektuari buruz iritzia ematea.

e) Departamentuko organoen arteko koordinazio irizpideak ezartzea.

f) Departamentuaren eraginkortasuna hobetzeko neurriak sustatzea.

g) Kontseilariak esleitzen dizkion beste batzuk.

6. Departamentuei erakunde publikoak eta sozietate publikoak atxiki ahal izanen zaizkie.

53. artikulua. Organoak sortu, aldatu edo deuseztatzea

1. Departamentuak sortu, aldatu edo deuseztatzea lehendakariaren foru dekretu bidez egiten da; foru dekretu horretan, esleitzen zaizkien administrazio-jardueren arloa edo arloak zehaztuko dira; kasua bada, haiei kasuan kasuko organismo eta sozietate publikoen atxikipena ere zehaztuko da. Parlamentuari foru dekretu horren berri eman beharko zaio.

2. Departamentuaren egitura organikoaren finkatzea eta zuzendaritza nagusien, zerbitzuen eta haiei parekaturiko organoen sortzea, aldatzea edo deuseztatzea Gobernuaren foru dekretu bidez egin beharko da, kontseilari interesdunaren edo

interesdunen ekimenez; hori, halere, ez da oztopoa izanen gero behar diren arau organikoen bidezko garapena egiteko.

3. Atalak, negoziatuak eta haiei parekaturiko organoak departamentuko titularrak sortu, aldatu edo deuseztatuko ditu, behar den foru aginduaren bitartez.

4. Organo berriak sortu edo aldatzeko egintzak, betiere, lortu nahi diren helburuei buruzko motibazioa exijituko du, bai eta haiei atxikitako giza eta gauza-baliabideei eta aurrekontu-baliabideei buruzko azterlan xehea eta Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren aldeko txostena ere, hain zuzen gastu publikoa bidegabeki handitu ez izanari buruzkoa.

II. KAPITULUA Eskumenen araubidea

54. artikulua. Printzipio orokorrak

Administrazio-eskumenak betetzeari ezin zaio uko egin, eta legeen bitartez edo organo horiek sortzeko foru dekretu edo foru aginduaren bitartez esleitzen zaizkien organoei dagokie.

55. artikulua. Deskontzentrazioa

1. Xedapen batek eskumena Foru Komunitateko Administrazioari edo haren departamenturen bati esleitzen dionean, organoa zehaztu gabe, ulertuko da instrukzioa eta ebazpena gaiaren araberako eskuduna den zerbitzuari dagokiola.

2. Administrazioaren organoen eskumen berekien titularitatea eta betetzea hierarkikoki mendeakoa diren beste batzuetan banatu ahal izanen dira, kontrakoa ezarri ezean.

3. Behin banatu ondoren, eskumenak hurrengo artikuluan ezarritakoaren arabera eskuordetu ahal izanen dira.

56. artikulua. Esku-ordetzea eta ordezkatzeara

1. Administrazioko organoen eskumen berekiz baliatzea maila bereko edo beheragoko beste batzuei eskuordetu ahal izanen zaie, nahiz eta hierarkikoki mendeakoa ez izan, kontrakoa ezarri ezean.

2. Eskumenen eskuordetzea eta haiek ezeztatzea esku-ordea ematen duen organoaren xedapen batez onetsi beharko da, eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

3. Ondoko eskumenak ezin izanen dira eskuordetu:

a) Konstituzioak eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikak zuzenean esleitutakoak.

b) Erregelamenduak emateko ahalmena.

c) Legeetan eskuordetzen ezinak direla ezarritakoak.

4. Administrazio-organoen titularrak, kanpoan badaude edo gaixorik badaude, edo karguak hutsik badaude, maila bereko departamentuko organoko titularrak ordeztuko ditu; halakorik izan ezean, beherantz hurrengo maila duen organoko titularra izan eta antzintasun handiena duenak, kontseilariak besterik ezartzen ez badu.

57. artikulua. Eraginkortasunaren kontrola

1. Legez ezarritako legezketasun eta kudeaketa ekonomiko eta finantzarioko kontrol mekanismoak ezertan kendu gabe, administrazio-organoguztiekin eraginkortasunari buruzko aldizkako kontrol bat izanen beharko dute.

2. Kontrol hori bermatzeko, bestelako neurriak hartzeko aukera kendu gabe, kontseilari bakoitzak urtero ondokoak onetsiko ditu bere departamentuaren egituraren zati diren organoei buruz:

a) Hurrengo ekitaldirako jarduketara plan bat, non helburuez gainera, eraginkortasunaren kontrollean erabili beharreko adierazleak eta metodologia finkatu beharko diren.

b) Aurreko ekitaldiko jarduketei buruzko oroitidazki bat, non aurreikusitako helburuak erdiesteari buruzko balorazio bat bilduko den.

3. Urteko planak eta oroitidazkiak publikoak izanen dira, eta Nafarroako Parlamentuari urteko azken eta lehen hiruhilekoetan, hurrenez hurren, horien berri eman beharko zaio.

IV. KAPITULUA Kide anitzeko organoak

58. artikulua. Araubidea

Foru Komunitateko Administrazioaren kide anitzeko organoak administrazio publikoen araubide juridikoari buruzko oinarriko arauen, kapitulu honetan jasotako arauen, haiek sortzeko xedapen edo hitzarmenen eta haien barne araubideari buruzko erregelamenduen arabera antolatuko dira.

59. artikulua. Sortzeko baldintzak

1. Kide anitzeko organo bat eratzeko xedapen edo hitzarmenak ondokoak jaso beharko ditu, nahitaez:

a) Haren xede eta helburuak.

b) Haren administrazio-atxikipena.

c) Haren osaketa eta haren kideak nor izanen diren —edo nor titularrak— eta idazkaria izendatzeko irizpideak.

d) Erabakimen eginkizunak, proposamenak eta txostenak emateko eginkizunak eta jarraipen edo kontrol eginkizunak, bai eta esleitzen ahal zaizkien bestelakoak ere.

e) Funtzionatzeko behar diren kredituak ematea, kasua bada.

2. Kide anitzeko organoetan beste administrazio publiko batzuetako ordezkariak egon ahal izanen dira, haiek hori borondatez onartzen dutenean edo halakorik ezartzen duen hitzarmen bat dagoenean, edo administrazio horiei aplikatzeko izan eta hura antolatzen edo baimentzen duen araurik dagoenean.

Kide anitzeko organoetan, halaber, hala ezartzen denean, gizartearen interesen ordezkari diren antolakundeek parte hartu ahal izanen dute, bai eta haiengan ematen diren esperientzia edo ezagutzen baldintza bereziengatik izendatzen direnek ere.

60. artikulua. Organoko kideak

Honakoak dira kide anitzeko organo baten kideak: burua, buruordea edo buruordeak, kasua bada, kideak eta idazkaria.

61. artikulua. Organoko buruaren eginkizunak.

1. Kide anitzeko organo bakoitzean, honakoak dagozkio organoko buruari:

a) Organoaren ordezkaria izatea.

b) Bilkura arruntetarako eta bilkura bereziatarako deia egitea eta gai-zerrenda finkatzea; horretarako, kontuan izanen ditu gainerako kideek behar besteko denboraz aurkeztutako eskaerak, aurkeztu badituzte.

c) Bilkuretako buru izatea, eztabaidak bideratzea eta eztabaida horiek etetea, bidezko arrazoirik badu.

d) Erabakiak hartzerakoan berdinketarik bada, bere botoaz erabakitzea; gizarte interesen ordezkari diren antolakundeen kasuan, ordea, hala izanen da bakar-bakarrik buruaren botoa erabakigarria dela ezartzen bada organoaren arauetan.

e) Organoaren aktak eta erabakien ziurtagiriak ikusi eta onestea.

f) Kide anitzeko organoko kidea izateak berez dakartzan eskubideez baliatzea.

g) Burua izateak berez dakartzan gainerako eginkizun guztiak betetzea.

2. Kargua hutsik badago edo organoko burua kanpoan edo gaixorik badago, kasuan kasuko buruordeak ordeztuko du burua; eta buruorderik ez badago, berriz, kide anitzeko organoan maila, antzintasun eta adinik handiena duen kideak ordeztuko du, betiere hurrenkera horretan.

62. artikulua. Kideen eginkizunak

1. Kide anitzeko organo bakoitzean, ondokoak dagozkie kideei:

a) Arauetan ezarritako gutxieneko denboraz deialdia jasotzea; hartan, bileraren gai-zerrenda bilduko da. Aztergaiei buruzko informazioa ere epe berean izanen dute eskuragarri.

b) Bilkuretako eztabaidetan parte hartzea.

c) Botoa emateko eskubideaz baliatzea, beren boto partikularra ematea eta botoaren esanahia eta arrazoiak azaltzea.

d) Eskariak eta galderak egitea.

e) Norberari emandako egitekoak betetzeko behar den informazioa lortzea.

f) Kide izateak berez dakartzan gainerako egiteko guztiak.

2. Kideek ezin dute organoari aitortutako ordezkari-tza bere gain hartu, organoak berak ez badie berariaz eman arau baten bidez edo, kasu jakin bakoitzerako, balio osoz hartutako erabaki batez.

3. Mahaikide karguren bat hutsik badago edo titularra kanpoan edo gaixorik badago, kide anitzeko organoko ordezkari kideek, halakorik badago, ordeztuko dituzte titularrak.

Gizarte interesak ordezkatzeko dituzten antolakundeek parte hartzen duten kide anitzeko organoen kasuan, antolakunde horiek beren kide titularrak ordeztu ahal izanen dituzte, kide anitzeko organoko idazkaritzan egiaztatuz.

63. artikulua. Idazkariaren eginkizunak

1. Kide anitzeko organoko idazkariari —organoa sortzeko arauan organoko kide gisa edo funtzionario moduan parte-hartzaile soil gisa arituko den ezarri beharko da— ondokoak dagozkio:

a) Bileretara hitzarekin eta botoarekin joatea, organoko kidea izanez gero, eta hitzarekin baina botorik gabe funtzionario soil moduan parte hartuz gero.

b) Buruaren aginduz organoaren bilkuretarako deia egitea eta kideei zitazioa egitea.

c) Kideek organoari egindako komunikazioak eta, beraz, jakinarazpenak, datu-eskaerak, zuzenketak edo ezagutu beharreko bestelako idazkiak jasotzea.

d) Gaiak bideratzeko prestatzea, bilkurako aktak idaztea eta akta horien fede ematea.

e) Emandako aholku, irizpen eta erabakien ziurtagiriak egitea.

f) Idazkaria kide anitzeko organoko kidea bada, halakoa izateagatik dauzkan eskubideez baliatzea

g) Idazkari izateak berez dakartzan gainerako egiteko guztiak.

3. Idazkari kargua hutsik badago edo idazkaria kanpoan edo gaixorik badago, kide anitzeko organoan maila, antzinasun eta adinik handiena duen kideak ordeztuko du, betiere hurrenkera horretan.

64. artikulua. Aktak

1. Kide anitzeko organoak egiten duen bilkura bakoitzaren aktan hartutako erabakia edo erabakiak agertuko dira.

Halaber, organoko kideren batek eskatzen badu, aktan jasoko da erabakiaren aurka emandako botoa, abstentzioa eta horien arrazoiak eta erabakiaren alde eman duen botoaren esanahia. Bestalde, kide guztiek eska dezakete norberaren hitzaldia edo proposamena osorik jasotzeko, baina, horretarako, hitzaldiaren testu osoa aurkeztu behar dute, une horretan bertan edo organoko buruak jarritako epean. Aktan testu hori idatzi beharko da, edo, bestela horren kopia erantsi.

2. Kideek boto partikularra eman dezakete idatziz, gehiengoaren erabakiarekin bat ez badatoz; hori egiteko berrogeita zortzi ordu izanen dituzte, eta onartutako testuan jasoko da.

3. Aktak bilkuran bertan edo hurrengoan onar daitezke; edonola ere, hartutako erabaki zehatzei buruzko ziurtagiriak egin ditzake idazkariak, akta aurrerago onartzeko egon arren.

Akta onartu aurretik egiten diren ziurtagirietan, espresuki adierazi behar da akta onartu aurretik eginak direla.

VII. TITULUA

Administrazioaren jarduketa

I. KAPITULUA

Arau orokorrak

65. artikulua. Jarduteko arauak

Foru Komunitateko Administrazioaren jarduketa foru lege honetan jasotako arauari eta administrazio prozedura erkidea arautzen duten oinarrizko arauari egokituko zaie.

66. artikulua. Gora jotzeko errekurtoa

Administrazio bidea amaitzen ez duten Foru Komunitateko Administrazioaren organoen ebazpenen aurka eta administrazio prozedura erkideari buruzko oinarrizko arauetan aurreikusitako kasuetako tramite egintzen aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izanen zaio haiek eman zituen organoko buruari.

67. artikulua. Administrazio bidearen amaiera

1. Honakoek amaituko dute administrazio-bidea:

a) Nafarroako Gobernuaren eta haren lehen-dakariaren ebazpenek.

b) Kontseilarien ebazpenek, salbu eta foru lege batez berariaz ezartzen denean Gobernuari gora jotzeko errekurtoa aurkezteko aukera.

c) Zuzendari nagusiek langileria arloan ematen dituzten ebazpenak.

d) Beheragoko organoen ebazpenek, administrazio-bideari amaiera jarriko zioten ebazpenak ematen dituen beste organo batek eskuordeturik ematen direnean.

e) Erakunde publikoen ebazpenek, haiei buruzko arau berariazkoek hori ezartzen dutenean.

f) Gora jotzeko errekurtoetan emandako ebazpenek.

2. Administrazio-bideari amaiera ematen dioten egintzen aurka, nahi izanez gero, berraztertze errekurtoa aurkez dakioke egintza eman duen organoari berari, aurreko idatz-zatiko f) letran aurreikusitako kasuetan izan ezik.

3. Deskontzentrazioari buruzko foru dekretuek ezarri ahal izanen dute deskontzentratu-tribuzioez baliaturik emaniko egintzek administrazio-bideari amaiera ematea.

68. artikulua. Berrikusteko errekurto berezia

Errekurtsoaren xedea den egintza eman duen administrazio-organoa izanen da berrikusteko errekurto bereziaz jakiteko organo eskuduna.

69. artikulua. Administrazioak bere kabuz berrikustea

1. Administrazioak xedapen eta egintza deusezak bere kabuz berrikusteko prozedurak, egintza

deuseza egin duen organoak hasi beharko ditu, bere kabuz nahiz interesdunak eskatuta.

2. Hierarkian gorago dagoen administrazio-organokoak, halakorik egonez gero, ebatziko ditu, edo bestela xedapen edo egintza deuseza eman duen organoak berak.

70. artikulua. Kaltegarritzat jotzea

1. Egintza deuseztagarrien kaltegarritasuna deklaratzeko prozedurak egintza egin duen organoak hasiko ditu, bere kabuz nahiz interesdunak eskaturik.

2. Egintza deuseztagarrien kaltegarritasuna deklaratzeko eskumena kasuan kasuko gaien eskuduna den departamentuaren titularrarena izanen da, salbu eta Gobernuak emaniko egintzen kasuan, halakoetan bera izanen baita eskuduna.

71. artikulua. Ezeztatzea eta zuzentzea

Kargak ezartzen dituzten eta edonoren kalterako diren egintzak ezeztatzea eta errakuntza materialak –egitezkoak nahiz aritmetikoak– zuzentzea, egintza eman duen administrazio-organuari egokitu zaizkio.

72. artikulua. Aurretiko erreklamazioak

1. Auzibide zibilera jo aurretiko erreklamazioak kasuan kasuko kontseilariak ebatziko ditu, salbu eta jabetzarekin edo eskubide errealekin loturikoak, Ogasun arloko kontseilariak ebatzi beharko baititu horiek.

2. Lan-auzibidera jo aurretiko erreklamazioak kasuan kasuko zuzendari nagusiak ebatzi beharko ditu. Gainerako arloetan, ebazteko eskumena erreklamazioaren xede den egintza eman duen administrazio-organorena izanen da.

3. Erreklamazio ekonomiko-administratiboetan berariazko arauetan ezarritakoaren arabera jokatuko da.

73. artikulua. Txosten juridikoa

Administrazio-errekurtsoetan, auzibideen aurretiko erreklamazioak, ondare erantzukizuna, Administrazioak bere kabuz eginiko berrikuspenak, itundutako amaiera eta epai judizialen exekuzioa ebazteko, nahitaezkoa izanen da departamentu eskuduneko zerbitzu juridikoen aurretik txostena ematea.

74. artikulua. Akzioez baliatzea eta laguntza juridikoa

1. Auzibidean akzioez baliatzeko, Gobernuak edo kasuan kasuko kontseilariak eman beharko dute baimena, eta aparteko izaeraz, presako

kasuetan, aholkularitza juridiko zentraletako arduradunak.

2. Epaiketetan, Foru Komunitateko Administrazioaren ordezkari eta defentsa, aholkularitza juridiko zentralari atxikitako funtzionarioei dagokie. Aparteko kasuetan, arrazoiak ematen dituen ebazpen batez, beste funtzionario baten edo lanbidean ari den abokatu baten esku utzi ahal izanen da. Halaber, aholkularitza juridiko zentralari atxikitako funtzionarioek eginkizun berak eduki ahal izanen dituzte Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoan aurreikusitako erakunde kasuan –haiei buruzko arauetan hala ezarrita dagoenean– eta Foru Komunitateko sozietate publikoen kasuan –behar den hitzarmena izenpetuz gero.

II. KAPITULUA

Administrazio-egintzen araubidea

75. artikulua. Ebazpenak

Beren eskumeneko gaietan, ondokoek eman ahal izanen dituzte administrazio-ebazpenak:

a) Nafarroako Gobernuak eta haren lehendakariak: foru dekretu izena emanen zaie ebazpen horiei.

b) Kontseilariak: foru agindu izena emanen zaie.

c) Zuzendari nagusiek, zerbitziburuek eta erakunde publikoak sortzeko arauetan aipatzen diren organoek: ebazpen izena emanen zaie.

d) Langileen burutza esleiturik daukaten gainerrako organo guztiek, beren zuzendaritza ahalmenez eta diziplina-zehapenez baliatzeko: ebazpen izena emanen zaie.

76. artikulua. Kontratuak

Foru Komunitateak egiten dituen kontratuak Estatuko oinarrizko legeetan eta gaiari buruzko foru arauetan ezarritako printzipioen arabera izanen dira.

77. artikulua. Zehapen ahalmenaren araubidea

Administrazioa zehapen ahalmenaz baliatzea administrazio publikoen oinarrizko legeei egokitu zaie; hori, halere, ez da oztopoa izanen gaiari buruzko arau-garapena egiteko edo aurreikus daitzkeen berezitasunak ezartzeko.

78. artikulua. Ondare erantzukizunaren araubidea

1. Foru Komunitateko Administrazioaren ondare erantzukizuna, partikularrei beren ondasunetan

edo eskubideetan zerbitzu publikoen funtzionamendu normal edo bidegabearen ondorioz eragindako kalteengatikoa, administrazio publikoen oinarrizko arauen arabera gauzatuko da.

2. Ondare erantzukizuneko prozedurak ebaztea gaia dela-eta eskuduna den kontseilariari dagokio, kontrataziorako ezarritako mugara bitartean, eta Nafarroako Gobernuari gainerako kasuetan, edo foru lege batek berariaz halakorik aurreikusten duenean.

VIII. TITULUA

Erakunde publikoak eta sozietate publikoak

I. KAPITULUA

Xedapen orokorrak

79. artikulua. Nortasuna eta atxikipena

1. Erakunde publikoek eta sozietate publikoek nortasun juridiko berezia, ondare eta diruzaintza berekiak eta kudeaketarako autonomia izanen dute.

2. Nafarroako Gobernuko lehendakariaren erabakiz, erakunde publikoak eta sozietate publikoak, xede dituzten gaien arabera, eskuduna den departamentuari atxikiko zaizkio.

80. artikulua. Sortzea, desegitea eta likidatzea

1. Erakunde publikoak eta sozietate publikoak foru lege sortuko eta deseginen dira.

2. Desegiteari buruzko xedapenek entitatearen likidazioa nola egin jasotzen ez dutenean, Nafarroako Gobernuaren foru dekretu betez eginen da hori, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak proposaturik.

81. artikulua. Erakunde publikoak

1. Nafarroako Gobernuaren mendeko erakunde publikoek politika sozial eta ekonomikoaren printzipio zuzentzaile gisa antolamendu juridikoak ezarritako interes publikoko helburuak betetzeko jardunen dute, eta, deszentralizazio funtzionalez baliaturik, Foru Komunitatearen eskumenera administrazio-exekuzioan eta exekuzio ekonomikoan jardunen dute.

2. Erakunde publikoak ondoko entitateek osatuta daude:

a) Erakunde autonomoak.

b) Zuzenbide pribatuko ente publikoak.

3. Erakunde publikoak haiek sortzeko foru legeaz, foru lege honetako xedapenez eta aplikatzekoak zaizkion beste lege batzuek arautuko dira, bai eta haien estatutuetan ezarritakoez ere.

II. KAPITULUA

Erakunde autonomoak

82. artikulua. Erakunde autonomoak

1. Foru Komunitateko erakunde autonomoek sustapen, prestazio edo zerbitzu publikoen kudeaketa jarduerak dituzte esleiturik, eta beti administrazio-zuzenbidearen arabera jardun behar dute.

2. Beren eskumenak garatzeko, erakunde autonomoek Foru Komunitateko Administrazioak daukan ahalmen, onurabide eta pribilegio berak izanen dituzte, salbu eta desjabetzeko ahalmena. Haien egintzak gainerako administrazio-organoen kontrol eta baliabideen arabide beraren pean daude.

83. artikulua. Sorrera

1. Erakunde autonomo bakoitza sortzeko foru legeak haren izen, helburu eta eskumen, zuzendaritza organo, helburuak betetzeko esleitzen zaizkion ondasun eta bitarteko ekonomikoak eta erregelamendu bidez alda daitezkeen aldeak jasoko ditu; kasua bada, erakundea deuseztatze-ko arrazoiak, deuseztapen hori gauzatzeko prozedura eta horren ondorioak ere jasoko ditu.

2. Nafarroako Gobernuak erakunde autonomo-estatutuak onetsi eta aldatuko ditu, haiek sortzeko foru legearekin bat.

84. artikulua. Langileak, ondarea, ogasuna eta kontratazioa

1. Erakunde autonomoetako langileei, ondare-areari, ogasunari eta kontratazioari buruzko araubidea oro har Foru Komunitateko Administrazio-ko ezartzen dena izanen da, legeek ezartzen dituzten berezitasunekin. Aurkako xedapenik ezean, erakunde autonomoko lehendakaria edo haren pareko pertsona bakarreko organo gorena izanen da kontratazio organoa.

2. Erakunde autonomoek, beren ondare berekiaz gainera, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren ondareko ondasunak eduki ahal izanen dituzte atxikirik.

85. artikulua. Eraginkortasunaren gaineko kontrola.

Erakunde autonomoek atxikirik dauden departamentuaren eraginkortasunaren gaineko kontrolaren mende egonen dira; hori, halere, ez da oztopo izanen egin beharreko kontrol ekonomiko-finantzarioak egiteko.

86. artikulua. Arau osagarriak

Erakunde autonomoa sortzeko foru legean aurreikusi ez denerako, antolamendu eta administrazio-jarduketari dagokienez, Foru Komunitateko

Administrazioari buruzko foru lege honetan ezarritakoa izanen da aplikatzekoa.

III. KAPITULUA Zuzenbide pribatuko ente publikoak

87. artikulua. Definizioa.

1. Interes publikoa duten eta zuzenbide pribatuko beren jarduerari loturik kontraprestazioa izan dezaketen ondoko izaerako jarduerak egiten dituzte Zuzenbide pribatuko ente publikoek: ekonomikoak, merkataritza-enteeak, industriakoak, nekazaritza-enteeak, finantzarioak edo antzekoak.

2. Balia ditzaketen ahalmen publikoak betetzeko, eta beren organoen borondatea osatzeko, ente publikoak administrazio-zuzenbideari lotuko zaizkio eta haiek sortzeko foru legean zehazten diren onurabide eta pribilegio berak izanen dituzte.

3. Estatutuek berariaz ezarritako organoko enteak baliatuko dira ahalmen publikoek.

4. Gai ekonomikoetan eta aurrekontu gaietan, Nafarroako Foru Ogasunari buruzko Foru Legean ezarritakoari begiratuko zaio.

88. artikulua. Sorrera

1. Zuzenbide pribatuko ente publikoak sortzeko foru legeak haren izen, helburu eta jarduera, zuzendaritza organo, helburuak betetzeko esleitzen zaizkion ondasun eta bitarteko ekonomikoak eta erregelamendu bidez alda daitezkeen aldeak jasoko ditu; kasua bada, entea deuseztatzeko arrazoiak, deuseztapen hori gauzatzeko prozedura eta horren ondorioak ere jasoko ditu.

2. Nafarroako Gobernuak zuzenbide pribatuko ente publikoen estatutuak onetsi eta aldatuko ditu, haiek sortzeko foru legearekin bat.

89. artikulua. Langileak

1. Zuzenbide pribatuko ente publikoetako langileak lan zuzenbideari lotuko zaizkio. Haien hautapena, salbu eta estatutuen indarrez izendapen librekoak diren zuzendaritza karguak, berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioetan oinarrituriko deialdi publiko batez egiten da.

2. Zuzenbide pribatuko ente publikoak sortzeko foru legeak Nafarroako administrazio publikoetako funtzionarioek ente horietako destinoak betetzeko baldintzak ezarri ahal izanen ditu.

90. artikulua. Ondarea eta kontratazioa

1. Zuzenbide pribatuko ente publikoek, beren ondare berekiaz gainera, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren ondareko ondasunak

eduki ahal izanen dituzte esleiturik, haiek administratzeko.

2. Kontratazioa administrazio publikoen kontratuei buruzko legeetan bildutako xedapenen arabera egiten da.

IV. KAPITULUA Sozietate publikoak

91. artikulua. Sozietate publikoak

Merkataritzako sozietate publikoak dira Nafarroako Foru Komunitatearen edo haren erakunde autonomoen esku-hartze zuzena edo zeharkakoa gehiengo osoa egiten duen merkataritza sozietateak.

92. artikulua. Sortzea eta desegitea

1. Sozietate publiko baten sorrera foru lege bidez baimendu beharko da eta merkataritza sozietate bat –anonimoa, sozietate publikoaren nolakotasunarekin, ahal dela– eratuz edo jada eratuta dagoen merkataritza sozietate bati nolakotasun hori emanez egin ahal izanen da.

2. Honakoak dira sozietate publikoak desegiteko kasuak:

a) Kalifikazio hori hartutako merkataritza sozietatea desegitea.

b) Sozietate publikoaren nolakotasuna galtzea.

Nolakotasun hori galtzeak ez du esan nahi merkataritza sozietatea desegitea, salbu eta hori sozietatea desegiteko legean nahiz estatutuan jasotako arrazoia bada.

93. artikulua. Araubidea

1. Sozietate publikoak antolamendu juridiko pribatuaz arautuko dira guztiz, edozein dela ere haien forma juridikoa, salbu eta aurrekontu, kontabilitate, finantza-kontrol eta kontratazio arauak aplikatzekoak zaizkienean. Ezin izanen dute inolaz ere erabili aginte publikoek baliatzea dakarten ahalmenak.

2. Sozietate publikoak departamentu bati atxikiko zaizkio legeetan ezarritako kontrol eginkizunez baliatzeko helburu bakarrekin.

Xedapen gehigarriak

Lehena. Foru Komunitateko eta haren erakunde autonomoetako administrazioak, bere eskumeneko helburuak gauzatzeko, fundazioak eratu ahal izanen ditu edo beste entitate publiko nahiz pribatu eta partikularrekin batera eratu ahal izanen ditu, fundazioei buruzko lege orokorretan ezarritakoari jarraituz. Fundazio horiei ezin izanen

zaie eman administrazio ahalmenez baliatzeko edo zerbitzu publikoak emateko eginkizunik.

2. Ekimen publikoko fundazio pribatu bat eratzeko, Nafarroako Gobernuak, foru dekretu batez, baimena eman beharko du.

3. Fundazioen zuzkidura eta ondarea, xedapen honetan aipatzen direnak, fundazioek zuzenbide pribatuaren termino berekietan dauzkaten betebeharreri dagozkie; fundazioen egintzen ondoriozko erantzukizuna ezin izanzen zaio zabaldu pertsona juridiko fundatzailearen ondareari.

4. Fundazio baten mendeko langileek lan kontratuen arabera araubide juridikoa izanzen dute.

5. Ekimen publikoko fundazio pribatu hauen kontratazioa zuzenbide pribatuko legeen arabera izanzen da, ezertan kendu gabe administrazio publiko fundatzailearen jarduketak berez bete behar dituen publizitate eta gardentasun printzipioak.

6. Ekimen publikoko fundazio pribatuen finantza-jardueraren kontrola Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Legearen eta gainerako arau fiskalen arabera garatuko da.

Bigarrena. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, beste administrazio publiko batzuekin edo irabazi asmorik gabeko entitate pribatuekin batera, partzuergoak eratu ahal izanzen ditu zerbitzu publikoak batera kudeatzeko edo beren eskumeneko guztien intereseko helburuak aurrera eramateko. Partzuergo baten sorrera eta haren estatutuak Nafarroako Gobernuaren foru dekretu bidez onetsi beharko dira. Partzuergoari Foru Komunitateko Administrazioaren ondasunak eta langileak atxiki ahal izanzen zaizkie, haren mendeko erakunde publikoekin egiten den era berean.

Hirugarrena. Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legea honela aldatuko da:

a) 105. artikuluari 2. idatz-zati bat gehituko zaio, ondoko edukiarekin: "Aurreko idatz-zatietan sartzen ez diren partzuergo, elkarte, ekimen publikoko fundazio pribatu eta nortasun juridiko berekia daukaten gainerako entitateak, baldin eta Foru Komunitatearen Administrazioaren ordezkari zuzena edo zeharkakoa gehiengo bada, artikulua honetan ezarritako finantza-kontrolaren mende egonen dira. Foru Komunitateko Administrazioak ente horietako ordezkarietan gehiengo duela ulertuko da zuzenean edo erakunde publiko eta enpresen bitartez zuzendaritza, administrazio edo zaintza organoetako kideen erdia baino gehiago izendatzeko ahalmena duenean, edo fundazioko

kapitalari edo haren baliabide berekien eratzeari egiten dien ekarpenaren gehiengo jarri duenean".

b) 113. artikuluari e) letra gehituko zaio, ondoko edukiarekin: "105. artikuluko 2. idatz-zatian aipaturiko entitateen kontuak".

Laugarrena. Nafarroako Gobernuak, bere kontrol lanetarako, Foru Komunitateko Administrazioari loturiko nortasun juridiko berekiko entitateen erregistro bat sortu eta mantenduko du; hartan, erakunde publiko, sozietate publiko, fundazio pribatu eta partzuergoaren erregelamendu bidez zehazten diren datuak jaso beharko dira.

Bosgarrena. 52. artikuluan aurreikusitakoa gorabehera, atalburu eta bulegoburu karguak eta haiekin parekatutakoak behin-behinekoz izendatu ahal izanzen dira, gehienez ere urtebeterako, haiek betetzeko merezimenduen lehiaketa tramitatzen eta ebazten den bitartean.

Xedapen iragankorra

Foru lege hau indarrean sartzeko denean behin-behinekoz beterik dauden atalburutza eta bulegoburutzek egoera horretan jarraituko dute hari eta lehiaketa bidez betetzen diren arte, eta betiere gehienez ere urtebeteko eperako. Nafarroako Gobernuak, epe hori amaitu baino lehen, behar diren xedapenak emanen ditu aipatu burutzak betetzeko merezimendu lehiaketetarako deia egiteko.

Xedapen indargabetzailea

Indarrak gabe geldituko dira foru lege honi kontrako egiten dioten maila berdineko edo txikiagoko xedapen guztiak, eta bereziki Nafarroako Foru Komunitateko Gobernuari eta Administrazioari buruzko apirilaren 11ko 23/1983 Foru Legea.

Amaierako xedapenak

Lehen. Foru lege honek indarra hartzen duenetik urtebeteko epean, Nafarroako Gobernuak behar diren xedapenak emanen ditu Foru Komunitateko Administrazioaren egitura hari egokitzeko.

Bigarrena. Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoko 20.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz, foru lege hau aldatu edo indarrak gabe uzteko, proiektu osoari buruzko amaierako bozketa batean, gehiengo osoa beharko da.

Hirugarrena. Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta hiru hilabete epean hartuko du indarra.

Foru Lege proposamena, Nafarroako aurrezki kutxen zuzendaritza organo- noei buruzko apirilaren 21eko 7/1987 Foru Legea hein batean aldatze- koa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroako Demokratikaren Elkargunea Parlamentuko Taldeak Nafarroako aurrezki kutxen zuzendaritza organo-
noei buruzko apirilaren 21eko 7/1987 Foru Legea hein batean aldatzeko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Nafarroako aurrezki kutxen zuzendaritza organo-
noei buruzko apirilaren 21eko 7/1987 Foru Legea hein batean aldatzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzea.

2. Foru Lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2002ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proposamena, Nafarroako aurrezki kutxen zuzendaritza organo- noei buruzko apirilaren 21eko 7/1987 Foru Legea hein batean aldatzeko

ZIOEN AZALPENA

Apirilaren 21eko 7/1987 Foru Legeak Nafarroako aurrezki kutxen zuzendaritza organoak arautu zituen, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoan xedatutakoari jarraikiz Foru Komunitateak aurrezki kutxen arloan duen erabateko eskumenaren babesean. Xedea entitate horien demokratizazioa izan zen, kudeaketan bat egiten duten interesetara tokia eginez eta organoen eskumenak bereiziz espezializazioaren printzipioan oinarriturik.

Erabateko eskumen horretaz baliatuz, Nafarroako Parlamentuak aurrezki kutxen zuzendaritza organo-
noei buruzko 7/1987 Foru Legea eman zuen,

“aurrezki kutxetako zuzendaritza organoen demokratizazioa lortzeko, bertan kudeaketan bat egiten duten interes guztiek tokia izan dezaten, batetik, eta, bestetik, organoen eskumenak bereiziz espezializazioaren printzipioan oinarriturik, gobernu organoen gain utzitako eginkizunak dinamizatu eta eraginkorrago bihurtzeko helburuarekin.”

Nafarroako Foru Komunitatean aurrezki kutxak bateratzeko prozesua gertatu da eta, horren ondorioz, entitate berri eta bakarra sortu da, Nafarroako Kutxa, alegia. Orain arte, alabaina, ez dira bete 7/1987 Foru Legearen helburuak, lehengo kutxen egoera berezia dela-eta. Absortzio bidez bat egiteko prozesuari esker, aipatu egoera gainditu eta Foru Komunitateak gai horretan erabateko eskumena duela onartu da, Estatuko administrazioarekin hitzarmenak izenpetu beharko badira ere entitatearen estatutuak legedira egokitzeko.

Ekimen honen helburua bikoitza da. Alde batetik, Nafarroako Aurrezki Kutxa demokratizatzeko prozesuan aurrera egitea, Nafarroako aurrezki kutxen zuzendaritza organo-
noei buruzko apirilaren 21eko 7/1987 Foru Legean islatu zen bezala, eta, bestaldekik, Espainiako 1978ko Konstituzioan eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Legean agertzen den bereizgarriari eustea. Foruaren interpretazio zabal eta neurriko batek eragile izan beharko luke Foru Komunitateko bizitza sozial, politiko eta ekonomikoan parte hartzeko organoetan partaidetza eta demokratizazio maila handiagoak eta hobeak lortzeko bidean. Foruaz eta autogobernurako ahalmenaz baliatzea Nafarroako Kutxa demokratizatzeko prozesua eragozteko ez da egokia Nafarroako Forua aniztasuna eta partaidetzarako gunez hartuz gero.

Artikulu bakarra. Nafarroako aurrezki kutxen zuzendaritza organo-
noei buruzko apirilaren 21eko 7/1987 Foru Legearen ondoko artikuluen edukia hauxe izanen da aurrerantzean:

Lehena.

“8. artikulua. Batzarreko kideak.

1. Aurreko artikuluan aipatutako sektoreen ordezkariak portzentaje hauen arabera izanen da:

a) Aurrezki kutxako ezarleen ordezkariak kontseilulakide nagusien 100eko 20koa izanen da.

b) Aurrezki kutxen pertsona edo entitate fundatzaileen ordezkariak kontseilukide nagusien 100eko 40koa izanen da. Pertsona edo entitate fundatzaileek Nafarroako Parlamentuari emanen diote beren ordezkariak portzentajearen erdia; Biltzarrak taldeen artean banatuko du, eta gutxienez bost talderi emanen die partaidetza.

c) Aurrezki kutxaren bulegoa duten Foru Komunitateko herrietan, bertako udal korporazioek ordezkariak izanen dute, kontseilukide nagusien 100eko 30ekoa.

d) Aurrezki kutxako langileen ordezkariak kontseilukide nagusien 100eko 10ekoa izanen da.

2. Pertsona edo entitate fundatzaileek beren ordezkariak baliatu nahi ez duten aurrezki kutxen kasuan, ordezkariak portzentaje hori gainerako taldeen artean hainbanatuko da.”

Bigarrena

“14. artikulua. Udal korporazioetako ordezkarien hautapena

1. Aurrezki kutxaren bulegoa duten Foru Komunitateko herrietako udal korporazioak ordezkariak dituzten kontseilukide nagusiak zuzenean izendatuko dituzte korporazioek beraiek, erregelamenduz ezarriko den prozedura erabiliz. Ordezkariak horren kontseilukide nagusi izendatua izateko foru lege honen 9. artikuluan ezartzen diren baldintzak bete beharko dira eta, halaber, ez da izan behar 11. artikuluan aipatzen den bateraezintasunik.

2. Toki korporazioak aurrezki kutxa bat fundatu eta hori, osotara edo hein batean, beste aurrezki kutxa baten jarduketara esparruan aritzen bada, toki korporazio horrek ez du ordezkariak izendatzerik izanen fundatzaile ez den horretan.”

Hirugarrena.

“22. artikulua. Kideak eta eginkizunak.

1. Administrazio Kontseilua da finantza administrazioa eta kudeaketa bere gain dituen organoa, bai eta Ongizate eta Gizarte Lana ere; halaber, aurrezki kutxa partaide deneko korporazio, fundazio eta sozietateen kontrolaren ardura ere hark du.

2. Administrazio Kontseiluko kideen kopurua hamaikatik hogeita batera bitartekoa izanen da, eta kontseilu horretan ordezkariak egon beharko dira udal korporazioak, ezarleak, pertsona edo entitate fundatzaileak eta aurrezki kutxako langileak.

3. Administrazio Kontseiluko kide bat agintaldia amaitu aurretik kargutik kendu edo aldatuz

gero, haren ordezkariak beteko du tokia, agintaldia akitu arte.

Ordezkariak multzo bakoitzak, ondorio horietarako soilik, administrazio kontseiluan zenbat kide dituen, hainbat ordezkari izendatuko ditu, kontseiluko kideak izendatzeko prozedura berbera erabiliz.

Laugarrena.

“23. artikulua. Ordezkariak.

Administrazio Kontseiluan, taldeen interesen ordezkariak talde horien beraien partaidetzaren bitartez gauzatuko da, foru lege honen 8. artikuluan Batzar Nagusiko kideentzat ezarritako proportzio eta ezaugarriekin, baina berezitasun hauekin:

a) Administrazio Kontseiluan ezarriko diren ordezkariak Batzar Nagusiak izendatuko ditu, talde horretako kontseilukide nagusiek proposaturik eta haien artean. Ezarriko diren ordezkariak izateko hautagaiak proposatu ahalko dituzte kontseilukide nagusiek, eskatzaileen kopurua, betiere, kopuru osoa zati zortzi eginik ateratzen dena baino handiagoa bada. Nolanahi ere, kontseilukide nagusi ez diren bi pertsona, gehienez ere, izendatu ahalko dira, profesionaltasuneko baldintza egokiak betetzen badituzte.

b) Administrazio Kontseiluan pertsona edo entitate fundatzaileen ordezkariak izanen diren kideak Batzar Nagusiak izendatuko ditu, korporazio horiek ordezkariak dituzten kontseilukide nagusiek proposaturik.

c) Administrazio Kontseiluan udal korporazioen ordezkariak izanen diren kideak Batzar Nagusiak izendatuko ditu, korporazio horiek ordezkariak dituzten kontseilukide nagusiek proposaturik.

Talde honen ordezkariak diren kontseilukide nagusiek hautagaiak proposatu ahalko dituzte, eskatzaileen kopurua, betiere, kopuru osoaren hamarrena bada, gutxienez.

Udal korporazioak ordezkariak dituzten kontseilukide nagusiak beraiek izendatuko ahalko dira, edo hirugarrenak, bi gehienez ere, baldin eta profesionaltasuneko baldintza egokiak betetzen badituzte.

d) Administrazio Kontseiluan aurrezki kutxako langileen ordezkariak diren kideak Batzar Nagusiak izendatuko ditu, talde horretako kontseilukide nagusiek proposaturik eta haien artean.”

Bosgarrena.

“33. artikulua. Kideak.

1. Kontrol Batzordeko kideen kopurua lautik zortzira bitartekoa izanen da, eta Batzar Nagusiak aukeratuko ditu Administrazio Kontseiluko kide izaera ez duten bere kideen artean. Batzordean udal korporazioak, ezarleak eta aurrezki kutxako langileak egon beharko dira ordezkaturik. Hautagaien zerrenden aurkezpena Administrazio Kontseiluko kideen gainean xedatutakoari lotuko zaio.

2. Kontrol Batzordeko kide izan ahalko da, halaber, gaitasun eta prestakuntza tekniko egoiak dituzten pertsonen artean Nafarroako Gobernuak hautaturiko ordezkari bat. Batzordeko bilere-tan parte hartuko du, hitzarekin eta botorik gabe.

3. Batzordeko kide bat, salbu eta Nafarroako Gobernuaren ordezkaria, aurreko idatz-zatian aipaturikoa, agintaldia amaitu aurretik kargutik kendu edo aldatuz gero, haren ordezekoak beteko du tokia, agintaldia akitu arte. Ordezkaritza multzo bakoitzak, ondorio horietarako soilik, batzordeak zenbat kide dituen, hainbat ordezeko izendatuko ditu, batzordeko kideak izendatzeko prozedura berbera erabiliz.

4. Kontrol Batzordeak lehendakaria eta idazkaria izendatuko ditu bere kideen artean.

5. Kontrol batzordeak eskatzen duen aldiro, zuzendari nagusiak bileretan hartuko du parte, hitzarekin eta botorik gabe.

Xedapen gehigarria

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 56.1.f) artikuluan ezarritakoarekin bat, foru lege honetan xedatutakoak eragina izanen du egun dauden hitzarmenetan, eta, beraz, honen kontrakoak izanez gero egokitu egin beharko dira, azken xedapenetan bigarrenak ezartzen duen epean.

Azken xedapenak

Lehena. Foru lege honek indarra hartu eta hiru hilabeteko epean, Nafarroako Gobernuak legea garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren arauzko xedapenak emanen ditu.

Bigarrena. Arauzko xedapen horiek indarra hartu eta sei hilabeteko epean Nafarroako Kutxaren Estatutuak eta Erregelamenduak arautegi berrira egokituko dira eta Nafarroako Gobernuari aurkeztuko zaizkio, onets ditzan.

Xedapen indargabetzailea

Foru lege honen edukiaren aurka doazen maila bereko edo beheagoko xedapen guztiak indarririk gabe gelditu dira.

Foru Lege proposamena, Nafarroako jatorrizko deitura duen ardoaren sektorea sustatzekoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artiku-luak aitortzen dion legegintzarako ekimena erabi-liz, Socialistas del Parlamento de Navarra, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua eta Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jel-tzalea-Partido Nafarroako jatorrizko deitura duen ardoaren sektorea sustatzeko Foru Lege proposa-mena aurkeztu dute.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Nafarroako jatorrizko deitura duen ardoaren sektorea sustatzekoa Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2. Foru Lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. arti-kuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2002ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proposamena, Nafarroako jatorrizko deitura duen ardoaren sek-torea sustatzekoa

ZIOEN AZALPENA

Europako Batasun osoan, ardoaren sektorea atzeraldian dago, bistakoa denez. Munduko beste toki batzuetatik (Argentina, Txile, Hego Afrika...) heldu diren ardoak gure merkatuan sartzeak, eda-rien kontsumoan gertaturiko aldaketek, bai eta ekoizpenaren gehikuntzak ere batez besteko pre-zioen beherakada eragin dute.

Estatuan, sektorea krisi larrian dago deitura gutxik lortzen baitute prezio duinean saltzea, 2000/2001 kanpainaren hasieran izakinen kopu-rua handia (27,5 milioi hl, horietatik 17,9 jatorrizko deiturakoak, 9,2 mahaiko ardoarenak eta 0,4 bes-telako ardoenak) eta markak hautsi dituen ekoiz-pena, 45,5 milioi hl-tik gorakoa, direla-eta.

Nafarroan, berriz, ekoizpen eta merkaturatze kurbak ez dira bat etorri. 1998an ia erabateko

oreka gertatu zen bien artean: ekoizpena 53 milioi litrokoa eta merkaturatzea 52 milioi litrokoa. Horrek gezurrezko itxaropenak piztu zituen, mahatsondoak landatzea eta espekulazioko kapi-talak sartzea eraginez. Horren guztiaren ondorioa izan da azken urteotan ekoizpenaren eta merkatu-raztearen artean izan dugun desoreka larria.

Nafarroako jatorrizko deiturak 95 milioi kilo mahats (66 milioi litro) bildu zituen azken kanpai-nan, aurreko urtean bildutakoa -125 milioi kilo-koa- baino askoz gutxiago, eta halere egungo merkaturatze ahalmena urruti samar dago ekoiz-pen horietatik. Bi urtetan, 1998an eta 1999an, ekoizpena eta merkaturatzea batera ibili ondoren, 2000. urtean elkarrengandik aldendu ziren eta 2001. urtean gauza bera gertatu da.

| | 1998 | 1999 | 2000 |
|---------------|------------|------------|------------------|
| Ekoizpena | 53.759.608 | 51.240.581 | 84.268.000 litro |
| Merkaturatzea | 52.259.926 | 50.538.515 | 39.765.000 litro |

1999a urte ona izan bazen ere merkatu kuota galdu zen, ia bi milioi litro, eta 2000. urtean stock-a sortzea da egungo egoeraren eragile.

Egoera honek ondorioak ditu ekoizpenaren kate osoan, baina bereziki kaltetzen du sentibera-tasun handieneko aldea, alegia, Nafarroako jato-rrizko izendapenaren esparruan dauden 120 uda-lerri nafarretako 6.443 mahastizainen multzoa, gehi Errioxako deituran ari direnak, hau da, guzti-ra, 10.000 pertsona inguru, zuzeneko eta zehar-kako lanpostuak kontuan hartzen baditugu.

Ez dugu landa eremuko mundu biziaz hitz egi-terik izanen horren eragile nagusiak kostuak har-tzeko modukoa ere ez den ekoizpena egitera beharturik badaude; eragotzi egin behar dugu pla-netako errealitate osoarekiko hain garrantzi han-dia duen inguruneak, natur inguruneak, alegia, haren bizi kalitatearen baldintzetan pairatzen duen jazarpen etengabea, biziraupena ezbaian jartzerainokoa.

Ekintza asko dira beharrezko sektore ekonomi-ko horrek jasaten dituen ondorioei aurre egiteko: kalitateko ekoizpena bultzatzea, landatzeko esku-bideak etetea, nekazari gazteentzat salbu, stock-en zati bati irtenbidea ematea destilazioaren bidez, mahasti berrietarako mugak jartzea, legez kanpoko mahastien kontrola, nekazaritza eta ingurumeneko neurriak eta ekoizpen baldintze-nak. Une honetan, nolana ere, gure ustez beha-rezkoa da gure ardoak sustatzeko kanpainak are-

agotzea, kontsumitzaile gehiagok ezagutu dezaten produktua eta merkatuko kuotak handitu ahal izateko. Jakina da jatorrizko deituradun ardo nagusiak saltzeko ahalegin handiena ostalaritzan egiten dela, sektore horretako kontsumitzaileek gehiago ordaintzeko joera izan ohi dutelako, baina banaketa eta hedadura geografikoa handitzeko helburua sustapen lanetan egin beharreko ahalegin sendoago baten eskutik etorriko da.

Nafarroak bere ardoen kalitatezko irudiaz baliatu behar du prezioen estrategiaren eta tokian tokiko deituren ugaltzeari aurre egiteko, egungo banaketa handitu eta dauzkan ekoizpen aukeretara egokitzeko den hedadura geografikoa erdie-tsiz.

Egoera horri erantzuteko, Nafarroako Jatorrizko Deituraren Kontseilu arau-emaileak, merkaturatzeko bideetan gure ardoen ezagutza eta presentzia nabarmen hobetu behar direla jabeturik baitago, marketing eta komunikazio estrategia bat taxutu du, gai honetan zerikusia duten sektoreen sostenguarekin; hori gauzatzeko zuzkidura ekonomiko egokiak behar dira orain.

Foru Biltzarrak kezka eta arduraren duenez sektorearen egoeraz, iazko azaroko lan bileretan aukera izan zuen zuzenean ezagutzeko kontseilu arau-emailearen beraren jarrera eta Nafarroako nekazaritzaren arloko erakundeena, baita Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuko arduradunen iritzia ere. Bilera haien ondorioz, gaian zerikusia duten eragileak ados jarri ziren haien eta administrazioaren arteko konpromisoa bilatzeko, administrazioak lau urtetarako marketing eta merkaturatze planaren ekintzen % 60 finantza dezan, eta sektoreak gainerako % 40.

Esandakoaren ondorio gisa egin da foru lege proposamen hau, ardoaren sektorean aho batez eskatzen ari denari, sektorerako marketing eta merkaturatze plana gauzatzeko behar den finantziarioa izateari, alegia, erantzuteko asmoarekin.

1. artikulua. Nafarroako Jatorrizko Deitura duten ardoen marketing eta merkaturatze plan estrategikoa, hurrengo lau urtetarako, onetsi da. Hauexek dira haren jarduketako ildoak:

(euroak, milioitan)

| Kontzeptua | 2002 | 2003 | 2004 | 2005 |
|--------------------------------------|------|------|------|------|
| Publizitatea | 2.70 | 2.10 | 1.80 | 1.80 |
| Sustapena. Kartetan agertzea | 0.18 | 0.18 | 0.12 | 0.12 |
| Sustapena. Hotel kateak | 0.12 | 0.09 | 0.09 | 0.09 |
| Sustapena. Banaketa. | 0.30 | 0.24 | 0.18 | 0.18 |
| Sustapena. Amaierako kontsumitzailea | 0.18 | 0.18 | 0.12 | 0.09 |
| Harreman Publikoak | 0.54 | 0.54 | 0.54 | 0.54 |
| Ikerketa | 0.06 | 0.06 | 0.06 | 0.06 |
| Guztira | 4.09 | 3.40 | 2.91 | 2.88 |

2. artikulua.

Nafarroako Gobernuak aurreko artikuluan aipatutako jarduketako ildoan % 60 finantzatzeko du.

Xedapen gehigarriak

Lehendabizikoa . Nafarroako Gobernuak hila-beteko epean aurkeztuko du kreditu berezi bat onesteko foru lege proiektu bat, foru lege honetan aurreikusitako plana finantzatzeko 2002an.

Bigarrena. Nafarroako Gobernuak premiatzen da harremanetan has dadin mahatsa Errioxako Jatorrizko Deituraren bidez merkaturatzen duten mahastizain nafarren ordezkariarekin, haien ardoak merkaturatzen laguntzeko plan bat egiteko.

Azken xedapenak

Lehendabizikoa. Ahalmena ematen zaio Nafarroako Gobernuari foru lege hau garatu eta betearazteko behar diren arauzko xedapen guztiak eman ditzan.

Bigarrena. Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Lege proposamena, hondakin bereziei buruzko irailaren 20ko 13/1994 Foru Legea aldatzekoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artiku-luak aitortzen dion legegintzarako ekimena erabi-liz, Batasuna Parlamentuko Taldeak Hondakin bereziei buruzko irailaren 20ko 13/1994 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aurkez-tu du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 108 eta 145. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledu-nen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Hondakin bereziei buruzko irailaren 20ko 13/1994 Foru Legea aldatzeko Foru Lege propo-samena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofi-zialean argitara dadin agintzea.

2. Aipatu foru lege proposamena premiazko prozeduraz bideratzea.

3. Foru Lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 108 eta 145. artikuluetan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2002ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proposamena, hondakin bereziei buruzko irailaren 20ko 13/1994 Foru Legea aldatzekoa

ZIOEN AZALPENA

Hondakin bereziak kudeatzeari buruzko iraila-ren 20ko 13/1994 Foru Legeko 12. artikulua honela zioen: "Nafarroako Gobernuak, legeria aplikagarrian aurikusitako modalitateen bitartez, erabakiko du kapital publikoa edo kapital gehiena publikoa eta lege aurrean hondakin berezien kudeatzaile den enpresa batek eramatea honda-kin berezien kudeaketa publikoa."

Nafarroako Gobernuak, aurrekoa helburu, ekainaren 3ko 235/1996 Foru Dekretuaren bidez, "Navarra de Medio Ambiente Industrial, S.A." kapi-tal publikoko sozietatea eratu zuen. Dekretu horrekin batera, eranskin gisa, sozietatearen esta-tutuak argitaratu ziren.

Estatutu horietako 4. artikulua enpresaren xede hizpide hartu eta hau ezartzen du: "sozietatearen xede soziala honako hau da: hondakin industrialen kudeaketa, ikerketa eta garapen tek-nologiko, tratamendu, berreskurapen eta birzikla-penarekin lotutako jarduerak sustatzea, hondakin horiek indarra duen arauteriak toxiko, arriskutsu, berezi, ez-arriskutsu edo geldotzat jotzen baditu, eta, orobat, horretarako beharrezkoak diren jar-duera osagarriak, gehigarriak eta lagungarriak."

Aldi berean, kapital publikoko enpresa horri esleitzen zaizkion eskumenetan lehena hau da: "hondakinak bildu, biltegitu, garraiatu, tratatu, berreskuratu eta deuseztatzeko eragiketak."

Halarik ere, Hondakin bereziak kudeatzeari buruzko 13/1994 Foru Legea onetsi eta zazpi urte baino gehiago pasa direlarik, foru legean ezarrita-ko eginkizunak egiteko aipatu enpresa eratu eta bost urte baino gehiago pasa direlarik eta Nafa-rroako Parlamentuak Hondakin bereziei buruzko plan kudeatzailea onetsi eta hiru urte baino gehia-go pasa direlarik, ez da gure erkidegoan inongo zentro publikorik Nafarroak industria jardueraren ondorioz sortzen dituen hondakin bereziak tratatu, errekuperatu eta deuseztatzeko.

Ikusten ari gara, aitzitik, 13/1994 Foru Legeak hirugarren pribatuei hondakin bereziak kudeatze-ko baimenik ez emateko epea ezarri zuela, eta, epe hori amaituta, zenbait ekimen pribatu proiektuak ari direla planteatzen gure erkidegoan indus-tria jatorri duten hondakin bereziak kudeatzeko; Nafarroak dituen beharrak baino tamaina askoz ere handiagoa dute horietako batzuk.

Gainera, foru legeak ezartzen zuena ez da gauzatu; hau da, legeak ezartzen zuen Nafarroa-ko hondakin bereziak kudeaketa publikoa izanen zutela, horrela ingurumena eta giza-osasuna babesteko.

Horregatik, foru lege honen edukia gaurkotu egin behar da, bermatzeko, hain zuzen, Nafarroan sortutako hondakin berezien kudeaketa publikoa izanen dela, baldin eta hondakinak sortzen dituz-ten industrien ezin badute kudeaketa hori egin. Proposatzen dugun gaurkotzearekin, lortuko dugu hondakinen kudeaketa ez dadila egon hondakinok sortzen dituzten emaitza ekonomikoen baitan, eta, halaber, irabazi asmoa ez gailentzea lortuko dugu; izan ere, hirugarren pribatuen kudeaketa proiektuak, ekonomikoki bideragarria izateko, bal-

dintza izan dezake Nafarroara beste erkidego batzuetako hondakin bereziak ekartzea.

Horregatik guztiagatik, Hondakin bereziak kudeatzeari buruzko 13/1994 Foru Legea aldatzea proposatzen dugu, Hondakin bereziei buruzko plan kudeatzailearen printzipio inspiratzaileak legera ekartzea helburu: Nafarroako errealitatearekin bat etorri beharra, hondakin-sortzaileen erantzukizuna, kudeaketa publiko-pribatua, beregaintasuna eta gertutasuna, kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuak.

1. artikulua. Hondakin bereziak kudeatzeari buruzko 13/1994 Foru Legearen 2. artikuluko b) letra aldatu eta honela geldituko da:

b) Era honetako hondakinak eta haien arriskua gero eta gehiago murriztea, eta ekoizpen prozesuetan haiek gutxiagotzeko teknikak sartzeari lehentasuna ematea. Jabetu beharra dago sortutako hondakinak kudeatu eta deusezteak, bai eta kutsaduraren ondorioak desagerrarazi eta egoera leheneratzeak, kostu ekonomikoa duela produkzio-prozesuan; hala ere, helburu nagusia kutsatzeari uztea da.

2. artikulua. Hondakin bereziak kudeatzeari buruzko 13/1994 Foru Legearen 2. artikuluko e) letra aldatu eta honela geldituko da:

e) Hondakinaren tratamendurako instalazioak sustatu eta garatzea, bai zuzenean bai beste erakunde publiko batzuekin batera arituz.

3. artikulua. Hondakin bereziak kudeatzeari buruzko 13/1994 Foru Legearen 2. artikuluari beste letra bat gehituko zaio: h) letra. Hona:

h) Europako printzipioak, hau da beregaintasun eta gertutasunaren printzipioak, gidari izatea, eta gure erkidegoan sortutako hondakinaren arazoa bertan konpontzea, sortutako lekutik ahalik eta gertuena gainera. Horretarako, osasuna eta ingurumenari emanen zaie lehentasuna, eta, horrela,

garraioaren arriskua ekidinen da eta hondakinaren emaria kontrolatuko.

4. artikulua. Hondakin bereziak kudeatzeari buruzko 13/1994 Foru Legearen 3. artikuluko 1. idatz-zatia aldatu eta honela geldituko da:

1. Foru Lege honetan ezarritakoa ez da eragozpen izanen industria hondakin bereziak sortzen dituzten industria edo jarduerak Nafarroan ezartzeko; aldeztatik eta nahitaez, jarduera eta irekitze lizentziak eskuratu beharko dira, ingurumena babesteko jarduera sailkatuei buruzko otsailaren 15eko 16/1989 Foru Legearen arabera izapidatuta.

5. artikulua. Hondakin bereziak kudeatzeari buruzko 13/1994 Foru Legearen 7. artikuluko 2 eta 3. idatz-zatiak kendu egingen dira.

6. artikulua. Hondakin bereziak kudeatzeari buruzko 13/1994 Foru Legearen hirugarren xedapen iragankorra aldatu eta honela geldituko da:

“Hirugarren xedapen gehigarria.

Tratamendu zentroaren edo zentroen ezartzea sustatuko du Navarra de Medio Ambiente Industrial, S.A. kapital publikoko enpresak; zentrook hondakin berezien kudeaketa publikoaz arduratuko dira. Zentro hori edo horien ezartzea bermatuta ez dagoen bitartean, ezinen da ez onetsi ez baimendu hondakin bereziak tratatu, biltegitatu edo antzekoetarako beste instalaziorik.”

7. artikulua. Beste azken xedapen bat. Hona:

“Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra. Lege honek indarra hartu bitartean, eta, Hondakin bereziak kudeatzeari buruzko 13/1994 Foru Legearen ezarritakoaren pean, prozedura administratiborik irekita badago hirugarren pribatuei hondakin bereziak kudeatzeko baimenak emateko, prozedurak eten egingen dira.”

Foru Lege proposamena, erditze multipleak izan dituzten familientzako laguntzari buruzkoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artiku-luak aitortzen dion legegintzarako ekimena erabi-liz, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak erditze multipleak izan dituzten familientzako laguntzari buruzko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Erditze multipleak izan dituzten familientza-ko laguntzari buruzkoa Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2. Foru Lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. arti-kuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2002ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proposamena, erditze mul-tipleak izan dituzten familientzako laguntzari buruzkoa

ZIOEN AZALPENA

Familiaren babesa Espainiako Konstituzioko politika sozial eta ekonomikoaren printzipio zuzen-tzaileen artean dago. Izan ere, Konstituzioko 39. artikulua familiaren babes sozial, ekonomiko eta juridikoa eta seme-alaben babes integrala ziurta-tzen ditu.

Ugalketa nagusiki erditze bakunen bidez gerta-tzen bada ere, azken urteotan izandako jaiotzek agertzen dute erditze bikoitz, hirukoitz eta, ohiz kanpo, laukoitzak maiztasun gero eta handiagoz gertatzen ari direla. Nafarroako Estatistika Institu-tuak 1998ko jaiotzei buruz dauzkan datu estatisti-koek kopuru hauek erakusten dituzte: hirurogeita hamahiru erditze bikoitz, bost hirukoitz eta erditze laukoitz bat. 1999ko jaiotzei buruz eskueran dau-den behin-behineko datu estatistikoek hirurogeita hamazazpi erditze bikoitz eta sei hirukoitzen berri ematen digute. Goranzko joera hori Estatuko gai-

nerakoan ere gertatzen ari da: datu estatistikoek gorakada jarraitua agertzen dute, bereziki erditze bikoitzei dagokienez.

Erditze anizkoizean jaiotako seme-alabak dituzten Nafarroako familien elkarteak erditze hiru-koitzak eta laukoitzak izan dituzten Foru Komuni-tateko familiak biltzen ditu, eta bere ordezkariak behin baino gehiago eskatu diete, bai Nafarroako Gobernuari bai Parlamentuari, egonkortasunez eta orokorki arautu daitezela erditze anizkoitzak izan dituzten familientzako zuzeneko nahiz zehar-kako laguntzak, eta erditze bikoitzak izan dituzten familiei ere jaiotza anizkoiz horiei aurre egiteko laguntza eman behar zaiela uste dute, berriazko babesa emateko arau-multzoko bat izateko.

Erditze hirukoitzak izan dituzten familiek egini-ko eskaeren ondorioz, Parlamentuak 2000ko eki-taldetik aurrerako Aurrekontu Orokorretan bera-riazko aurrekontu-lerro bat onetsi zuen, erditze anizkoitzak izan dituzten familiei laguntzak emate-ko. 241/2000 Foru Dekretuak erditze berean bi seme-alaba edo gehiago jaiotzeagatik Nafarroako Gobernuak familiei emanen dizkien laguntza eko-nomikoak arautzen ditu. Laguntza horiek emanen dira seme-alabek urtebete izan arte, bikien kasuan, eta hiru urte bete arte, hirukien edo seme-alaba gehiagoren kasuan, eta hileroko zen-batekoak hamabi mila pezetakoak izanen dira, erditze bikoitzetan, hogeita hamar milakoak, hiru-koitzetan, eta berrogei milakoak, laukoitzetan.

Hiru seme-alaba edo gehiagoko erditze aniz-koitzak izan dituzten familien babesek behar dute izan Estatuak nahiz Foru Komunitatea baino aber-astan maila apalagoa duten beste erkidego batzuek ematen dituztenen parekoak. Erditze anizkoitzak izan dituzten familiek bizi duten erreali-tateak erakutsi du familien baliabideak eskasak izan daitezkeela aldi berean bi, hiru edo lau seme-alaben oinarrizko beharizan pertsonalei aurre egi-teko babesa emateko; gogoan izan behar da kasu berezietan (osasun publikoak ordaintzen ez dituen tratamenduak) edo derrigorrezkoaren ondoko hezkuntzaren nahiz unibertsitatekoaren unea iris-ten denean beharrezkoa izan daitekeela baliabide asko, eskueran ez daudenak, erabiltzea.

Egoera horren aurrean, erditze anizkoitzak izan dituzten Nafarroako familiek laguntza orokor jarraituak eskatzen dizkiete gure erakunde publi-koei, erditze anizkoitzetan jaiotako seme-alaben adin-tarte bakoitza kontuan hartuko dutenak, fami-liaren bizitzan eragiten duten arlo guztietan (lan,

hezkuntza, gizarte, osasun, etxebizitzarena). Laguntza horietako batzuk zuzeneko laguntza ekonomikoak izanen dira, eta beste batzuek familien tratamendu fiskalari eraginen diote; azken esparru horretan, familia ugariak euren mesedera-ko dituzten neurri berberak izanen dituzte. Alabaina, eragin ekonomikoa sakonagoa da familia horietan, zeren eta jaioberriek beharrezkoak dituzten baliabideak berehalakoan, aldi berean eta egoera guztietarako biderkatzera behartzen baitute erditze anizkoitzek.

I. KAPITULUA Xedapen orokorrak

1. artikulua.- Xedea.

Foru Lege honek erditze anizkoitzetan jaiotako seme-alabak dauzkaten familientzako laguntzaren araubidea ezartzen du. Horretarako, berariazko laguntza ekonomikoak ematea eta hezkuntzaren, osasunaren, etxebizitzaren, laneko eta familiako eginbeharrak batera eramatearen eta erditze anizkoitzak dauzkaten familien tratamendu fiskalaren esparruetako laguntzak arautzen ditu.

2. artikulua.- "Erditze anizkoitz" kontzeptua.

1.- Foru Lege hau aplikatzearen ondorioetarako, erditze anizkoitz joko da erditze berean bi seme-alaba edo gehiago jaiotzen direnekoa.

Seme-alabetako bat ezgaitasunen batekin jaiotzen bada, horren orde bi jaiotzen bada balira bezala jokatu da. Horrela, bada, bikiak jaiotzen direneko erditzea hirukiztat joko litzateke, hirukiak jaiotzen direnekoa, laukiztat, eta abar.

2.- Erditze anizkoitzetan jaiotako haurrak adoptatzen badira, erditze anizkoitz naturalak izan dituzten familiei foru lege honek ezagutzen dizkien eskubide eta betebeharrak berberak izanen dituzte familia adoptatzaileek.

3. artikulua.- Laguntza ekonomikoak.

1. Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak zentralizatuko ditu erditze anizkoitzak izan dituzten familientzako zuzeneko eta zeharkako laguntza guztiak, eta, halaber, foru lege honek arauturiko laguntzak emateko baremoak eta prozedurak ezarriko ditu.

2.- Erditze anizkoitzak izan dituzten familiek Nafarroako aurrekontu orokorren kargura hilabetero ordainduko zaizkien laguntza ekonomikoak izanen dituzte, erditzean jaiotako seme-alaba kopuruaren eta adin-tartearen arabera.

2.1. Erditze bikoitzak izan dituzten familiak

a) 0 urtetik 3ra bitartean – seme-alaba bakoitzeko, 15.000 pezeta hilabetero.

b) 4 urtetik 12ra bitartean- seme-alaba bakoitzeko, 10.000 pezeta hilabetero.

c) 13 urtetik 18ra bitartean- seme-alaba bakoitzeko, 7.000 pezeta hilabetero.

2.2. Erditze hirukoitzak, laukoitzak edo gehiagokoak izan dituzten familiak:

a) 0 urtetik 3ra bitartean – seme-alaba bakoitzeko, 20.000 pezeta hilabetero.

b) 4 urtetik 12ra bitartean – seme-alaba bakoitzeko, 15.000 pezeta hilabetero.

c) 13 urtetik 18ra bitartean – seme-alaba bakoitzeko, 10.000 pezeta hilabetero.

4. artikulua.- Baldintzak.

1.- Lege honek arautzen dituen laguntzak jaso ahal izateko betekizunak honako hauek dira:

a)- Familia Liburuaren fotokopia.

b)- Familiako kideen errolda-ziurtagiria.

2.- Tratamenduen eta familiaren ahalmen ekonomikoa hein handian kaltetzen duten bestelako egoera berezien ondoriozko gastuei aurre egiteko ematen diren aparteko laguntza ekonomikoei dagokienez, honako hauek hartuko dira kontuan:

a) Familiak eskueran duen per capita errenta ez dadila izan Nafarroako batez besteko per capita errentaren %70 baino handiagoa, bikien kasuan, %85 baino handiagoa, hirukien kasuan, eta %100 baino handiagoa, laukien edo seme-alaba gehiagoren kasuan.

b) Osasun sistema publikoak ordaintzen ez dituen tratamenduen edo laguntza sozio-sanitarioak beharrezko egiten dituzten ohiz kanpoko gertakarien ondoriozko gastuei aurre egin ahal izateko familiak behar adina baliabide ekonomiko ez duela frogatzen duten dokumentuak aurkeztea.

c) Aparteko laguntzak ematean, euren zenbatekoari dagokionez progresibitate irizpidea erabiliko da, suertaturiko gastua osoki ordaindu arte, hala behar balitz. Gastu hori dokumentu bidez behar bezala frogatuko da.

II. KAPITULUA Hezkuntzaren arloko laguntza

5. artikulua.- Haur Hezkuntza.

1. Oti 6 urtera bitarteko Haur Hezkuntza doakoa izanen da hiru seme-alaba edo gehiagoko erditze anizkoitza izan duten familientzat eta Nafarroako urteko batez besteko per capita erren-

ta gainditu gabe bikiak dauzkaten familientzat. Familiaren per capita errenta batez besteko hori baino handiagoa denean, baremo bati jarraituz gastua progresibitatez murriztuko da, ahalmen ekonomikoaren arabera.

2. Haur hezkuntzarako aparteko laguntza ekonomikoak ezarriko dira, eskaintza publikorik ez izateagatik udalaren edo Nafarroako Gobernuaren haur ikastetxeetan sartzea ezinezkoa den kasuetarako.

5. artikulua.- Bekak eta laguntzak.

1. Erditze anizkoitzak izan dituzten familiei berariazko baremoak aplikatuko zaizkie, unibertsitatez kanpoko hezkuntzako maila guztietan, liburu, eskola-material, jangela eta garraiorako laguntza eta bekak emateari dagokionez.

2. Nafarroako Gobernuak beka bereziak sortuko ditu erditze anizkoitzetan jaiotako seme-alaben unibertsitate-hezkuntzarako. Beka horiek irakas-kuntza, garraioa eta ostatua ordaintzeko izanen dira.

III. KAPITULUA

Arlo sozio-sanitarioko laguntza

6. artikulua.- Prestazioak.

1. Erditze anizkoitzak izan dituzten familiek garraio publikoa erabili ahal izateko gizarte-txartela izanen dute.

2. Nafarroako Gobernuak zuzeneko eta zeharkako laguntzak antolatuko ditu osasun sistema publikoak hartzen ez dituen tratamenduen ondoriozko gastuei aurre egiteko, bai eta etxeko laguntzaren arloko tratamenduen ondoriozko gastuei ere, bereziki lehenengo urtean hirugarren pertsona batek laguntza emateko.

3. Nafarroako Gobernuak erditze anizkoitzak izan dituzten familiek lehenengo bi urteetan jaso ahalko dituzten laguntzak arautuko ditu; esne, ahi eta oinarritzko hainbat produktutarako –orgatxo, sehaska, eta haur-oihaletarako– laguntzak, hain zuzen.

IV. KAPITULUA

Etxebizitzaren arloko laguntza

7. artikulua.- Berariazko baremoak.

1. Erditze anizkoitzak izan dituzten familiei honako hauetarako hobariak emateko baremoak arautuko ditu Nafarroako Gobernuak:

a) Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga, lehen etxebizitzari dagokionez.

b) Interesak, lehen etxebizitza erostean edo jaiotza anizkoitzaren ondorioz bigarren etxebizitza batera aldatu behar izatean.

c) Interesak, etxebizitza familiaren hazkuntzaren ondorioz eraldatu eta egokitzeko asmoz eskaturiko maileguetan.

2. Jabetza- nahiz alokairu-araubideko babes ofizialeko etxebizitzak eskuratzeko baremoetan lehenetsuna emanen zaie erditze anizkoitzak izan dituzten familiei.

V. KAPITULUA

Fiskalitatearen arloko laguntza

8. artikulua.- Desgrabazio fiskalak.

1. Familia ugariei aplikatzekoak diren desgrabazio fiskalez gain, bizitzeko gutxieneko kopurua gehitu egingen da, jaiotza anizkoitzaren eragin ekonomikoa aintzat hartzearen, foru lege hau onetsi eta hurrengo aurrekontu-ekitalditik aurrera.

2. Erditze anizkoitzak izan dituzten familiek ez dituzte matrikulazio-zerga, zirkulazio-zerga eta BEZa ordaindu beharko "monobolumen" motako ibilgailuak erostean.

3. Erditze anizkoitzak izan dituzten familiek haurtxoen garraioa ahalbidetzeko ibilgailu-aldaketaren ondoriozko gastuak, berria nahiz bigarren eskukoa izan, eta familia-ibilgailuen egokitzape-nak desgrabatu ahalko dituzte.

4. Erditze anizkoitzak izan dituzten familiek jasotako zuzeneko laguntza ekonomikoei ez zaie PFEZa aplikatuko, eta bateragarriak izanen dira gainerako gizarte-laguntzekin, familiaren baliabide ekonomikoak nahikoak ez direla frogatzen denean.

VI. KAPITULUA

Lan-arloko laguntza

9. artikulua.- Familia-bizitza eta lan-bizitza uztartzea.

1. Erditze anizkoitz batean jaiotako ondoren inku-bagailuan egon behar duen seme edo alaba bakoitzeko, bi astez luzatuko da erditze anizkoitzaren ondoriozko amatasun-atsedenaldia. Atsedenaldira horren iraupena ospitaletik irteten den unetik aurrera kontatzen hasiko da. Gizarte Segurantzak ordaintzen ez duen atsedenaldira Nafarroako Gobernuak eman beharreko gizarte prestazioztat hartuko da.

2. Langileek laneko eta familiako eginbeharrak batera eramateko eta jaiotza-tasa sustatzeko neurri osagarri gisa onetsi diren laguntza ekonomiko-

ak handitu eginen dira, erditze anizkoitz bakoitzean jaiotako seme-alaben kopuruaren proportzioran, eta luzatu ahalko dira, bikiak jasotzen direnean, seme-alabek bi urte bete arte, eta hiru urte bete arte, hirukiak eta laukiak jaiotzen direnean.

3. Aita edo amaren lanaldi-murrizketa, erditze anizkoitzean jaiotako seme-alabak zaintzeko denean, %50erainokoa izan ahalko da lehen hiru urteetan, eta %20koa hurrengo hiruretan; betiere, lanaldi-murrizketa ez bada kontzeptu berberagatik bikoizten.

4. Autonomoen erregimen berezian dauden langileentzat berariazko laguntzak sortuko dira, erditze anizkoitzaren ondoriozko familia-handitzeak euren lan-bizitzari ekartzen dizkion eraginak arintzeko, halako moldez non besteren konturako langileek izaten dituzten laguntzei hurbilduko baitzaizkie.

Xedapen gehigarria

Nafarroako Gobernuak erditze anizkoitzak izan dituzten familien Erregistro bat eratu ahalko du,

bertan inskribatuz foru lege honetan bildutako neurrien jarraipen eta aplikazioa hobek izan daitezzen.

Xedapen indargabetzailea

Foru lege honek ezarritakoaren aurkako xedapen guztiak indargabetzen dira.

Azken xedapenak

Lehena.- Foru Lege honetako xedapenak Nafarroako familia guztiei edo Foru Komunitatean gutxienez urtebete lehenagotik egoitza daukaten familiei aplikatuko zaizkie, baldin eta euren ardurapean erditze berean jaiotako bi seme-alaba edo gehiago badituzte.

Bigarrena.- Nafarroako Gobernuak, sei hilabete epean, foru lege honetan ezarritakoa aplikatu eta garatzeko erregelamendu-arauak emanen ditu.

Hirugarrena.- Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hilabete-

Foru Lege proposamena, Gizarte Eskubideen Agiriari buruzko apirilaren 6ko 9/1999 Foru Legea aldatzekoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak Gizarte Eskubideen Agiriari buruzko apirilaren 6ko 9/1999 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Gizarte Eskubideen Agiriari buruzko apirilaren 6ko 9/1999 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2. Foru Lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2002ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proposamena, Gizarte Eskubideen Agiriari buruzko apirilaren 6ko 9/1999 Foru Legea aldatzekoa

ZIOEN AZALPENA

Eskubide sozialen gutun baterako apirilaren 6ko 9/1999 Foru Legearen helburua da Nafarroako Foru Komunitatean eskubide sozialen gutun bat aldarrikatzea, gutxienez bi urtez hemen bizi izan diren herritarrei bide emanen diena lana eta oinarrizko errenta izateko, herritartasun eskubide guztiez baliatu ahal izan daitezen.

Eskubide sozialen gutunak herritartasun eskubide unibertsalen berrespenean du abiapuntu, eskubide horiek bizimodu duina izan, kultura, etxebizitza, hezkuntza, osasun zerbitzuak eta gainerako pertsonen eskubide berdinekin gizartean erabat integratzeko baliabide ekonomiko nahikorik ez duten guztientzat direla ulertuta. Nafarroan bizi diren herritarrek gizarte produktuaren zati baterako egiazko eskubidea dutela onartzen da, lan merkatuan sartzetik ez dutenentzako oinarrizko errenta gisa. Halarik ere, Nafarroako zenbait herritarrek ezin du lanik izan, dela 65 urte baino gehiago duelako, dela duen egoeragatik –gaixotasun kronikoa edo % 33ko minusbaliotasuna baino handiagoa aitortzeko moduko ezgaitasun fisiko, psikiko edo sensoriala–, eta ez zaie aitortzen esku-hartze sozialeko mekanismo hori izateko eskubiderik. Ondorioz, pertsona horiek ez dute inongo errentarik jasotzen edo jasotzen duten hori gaur egungo oinarrizko errentaren azpitik dauden kotizazio gabeko pentsio, kotizaziopeko pentsio eta pentsio asistentzialak dira.

Eskubide sozialen gutunak abiapuntu dituen printzipioak garatu egin behar dira, eta egungo legedia egokitu beharra dago, ahalbidetzeko, horrela, gizarte-talde horiek duten eskubidearen aitortpena, eta ahalbidetzeko, halaber, oinarrizko errentak gaur egun duen zenbatekoaren (hileroko lanbidearteko gutxieneko soldataren 100eko 75 pertsona batentzat, eta familiako, gehienez ere, lanbidearteko gutxieneko soldataren 100eko 125) handitzea. Aldi berean, oinarrizko errenta herritarren eskubidea dela aitortu behar da, eta osagarria ezarri behar dela txirotasunean bizi direnentzat, kotizazio gabeko pentsio, kotizaziopeko pentsio eta pentsio asistentziala besterik jaso gabe, pentsio horiek ez baitira nahikoa bizitzeko.

Kontuan harturik eskubide sozialen gutunak zuzenean lotzen dituela oinarrizko errenta eta enplegua, beharrezkoa izanen litzateke abiapuntua lanbidearteko gutxieneko soldataren balioa

izatea, gaur egun duen zenbatekoa ez baita txirotasunaren mugara iristen –nazioarteko irizpideen arabera, batez besteko errentaren (hau da, egun, 3 milioi pezeta urtean) % 50ean dago muga hori–. Gure oinarrizko errenta, une hauetan, batez besteko errentaren % 25etik beherakoa da, eta, beraz, muturreko txirotasunaren mugatik behera dago; Estatutan, hala zenbateko nola errenta eskuratzeko baldintza horiek gaindituta daude.

Datu estatistiko guztien arabera, Nafarroako Foru Komunitateak Estatuko maila sozioekonomiko altuenetakoa du eta Estatuko batez besteko bigarren soldatarik handiena; hileko oinarrizko soldatak, ordea, gure erkidegoko langileen batez besteko soldataren % 21 egiten du. Horrek eraman behar gaitu, nahitaez, 9/1999 Foru Legeko xedapenak egokitzera, bermatuta egon dadin foru lege berorren betetzea; izan ere, legearen esanetan, herritarren eskubidea da produktu sozialaren zati bat oinarrizko errenta gisa jasotzeko eskubidea, bai lana bilatu eta aurkitzen ez dutenentzat bai lan merkatuan sartzeko aukerarik inoiz izanen ez dutenentzat.

Objektiboki, egoera ekonomikoak aukera ematen digu beharrezko hobetze horri aurre egiteko; aukera historiko paregabea dugu Nafarroako populazioaren 100eko 6ak eta bizitzeko beste norbaiten beharra duten pertsona-taldeek jasaten duen txirotasun sekulakoa eta gizarte bazterketa apaltzeko. Barne Produktu Gordinaren aldetik, Foru Komunitateak eta Ogasun Publikoak bere gain har dezakete kostu hori, azken urteotan izaniko aurrekontu superabitari esker, presio fiskala jaitsi eta PFEZaren zenbait erreforma aurrera atera dituen bezalaxe; erreformaok egoera ekonomiko onena duten gizarte-taldeentzat izan dira mesedegarri, eta, aldiz, gizarte-talde txiroenei lagundu behar diete.

1. artikulua. Eskubide sozialen gutun baterako apirilaren 9ko 9/1999 Foru Legearen III. tituluari beste artikulua bat gehituko zaio. Hona:

“Artikulu berria.- Gizarte sustapena

Oinarrizko errentaren zenbatekoa, halaber, gizarte-sustapenerako mekanismo izanen da botere publikoen babes berezia behar duten pertsonentzat, hala nola 65 urte baino gehiagoko pertsonak, gaixotasun kronikoa duten pertsonak eta % 33ko minusbaliotasuna baino handiagoa aitortzeko moduko, ezgaitasun fisiko, psikiko edo sensoriala duten pertsonak, baldin eta pertsona horiek ez badute dirusarrerarik edo kotizazio gabeko pentsio, kotizaziopeko pentsio eta pentsio asistentzialen ondorioz dituzten dirusarrerak oinarrizko errenta baino baxuagoak badira; hori hala

bada, dituzten dirusarrerren osagarri bat jasoko dute, oinarrizko errentaren zenbatekora heldu arte.”

2 artikulua. Eskubide sozialen gutun baterako apirilaren 9ko 9/1999 Foru Legearen III. tituluko 4. artikuluaaren edukia aldatu eta honela geldituko da:

“4. artikulua. Zenbatekoa

Oinarrizko errentaren zenbatekoa, hasieran, lanbidearteko gutxieneko soldataren 100eko 85eko dirusarrerren adinekoa izanen da pertsona bakarrarentzat; lanbidearteko gutxieneko soldataren 100eko 15 gehiago bigarren pertsonarentzat; lanbidearteko gutxieneko soldataren 100eko 10 gehiago hirugarrenetik aurrerako pertsona bakoitzeko.

Familia batek ezin izanen du lanbidearteko gutxieneko soldataren 100eko 150 baino gehiago jaso oinarrizko errenta edo gizarte soldata gisa.”

3. artikulua. Eskubide sozialen gutun baterako apirilaren 9ko 9/1999 Foru Legearen III. tituluarri beste artikulua bat gehituko zaio. Hona:

“Artikulu berria.- Oinarrizko errentaren zenbatekoa, urtero, lanbidearteko gutxieneko soldataren % 5 igoko da hurrengo hiru aurrekontualdian, lanbidearteko gutxieneko soldataren % 100eko 100era heldu arte.”

4. artikulua. Azken xedapen berria.

“Azken xedapena. Foru lege hau garatzeko, Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio egokitzeko Oinarrizko errenta arautzen duen apirilaren 19ko 120/1999 Foru Dekretua, abuztuaren 17ko 58/1999 Foru Agindua eta 9/1999 Foru Legean oinarritzen diren gainerako arauak.”

5. artikulua. Azken xedapen berria.

“Azken xedapena. Foru lege honek 2002ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du eragina.”

Foru Lege proposamena, 2002tik 2006ra bitarteko urteetarako etxebizitzaren arloko presako jarduketei buruzkoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobeitzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak 2002tik 2006ra bitarteko urteetarako etxebizitzaren arloko presako jarduketei buruzko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. 2002tik 2006ra bitarteko urteetarako etxebizitzaren arloko presako jarduketei buruzko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2. Foru Lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2002ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrús

Foru Lege proposamena, 2002tik 2006ra bitarteko urteetarako etxebizitzaren arloko presako jarduketei buruzkoa

ZIOEN AZALPENEA

Foru Lege proposamen honek xede du herritarrek etxebizitza eskuratu ahal izateari dagokionez Nafarroan dagoen eskariari eta gizarte-kezka handiari erantzuna ematea.

Oinarri juridikoa Espainiako Konstituzioko 47. artikuluan dauka; izan ere, bertan ezartzen da espainiar guztiek eskubidea daukatela etxebizitza duin eta egoki bat izateko, eta botere publikoek eskubide hori gauzatzeko behar diren baldintzak sustatuko dituztela eta horretarako egokiak diren arauak ezarriko dituztela, eta, era berean, lurzuaren erabilera interes orokorrari jarraikiz arautuko dutela, espekulazioa eragozteko.

Mende hasiera honetako Nafarroari zuzenduriko etxebizitza plan batek ezarri beharreko helburuen eta neurrien multzoa foru lege baten mailara igotzea du asmo, eta hori bi arrazoiren ondorioa da: alde batetik, egin behar diren politikei ahalik

eta maila formal handiena ematea, arazoaren larritasunaren agergarri, eta bestetik, administrazio publikoetan politika egoki, zorrotz eta tinkoak bete daitezten bermatzea.

Erabilitako proposamen-teknika eztabaidagarria da. Betiere komenigarria da, posible egiten baitu arazo zehatz bati aurre egiteko politika zehatz bat planifikatu eta diseinatzearen langintzan Parlamentuak esku hartzea, eta Nafarroako Gobernuari ildo bat agintzen diolako bere jardueran, ia datorren legegintzaldia bukatu arte. Gainerakoan, bateragarri egiten dira hartu beharreko neurrien presakotasuna, batetik, eta kudeatzelana bera egitea nahiz emaitzak lortzea ahalbidetuko duen epe baten beharra, bestetik.

Helburuak kopuruen bidez zehaztean, legeproposamena asmo handikoa eta errealista da aldi berean: babes-araubideko 17.000 etxebizitza eta lurzoru eskuragarriko 7.000.000 metro koadro. Mota ezberdinak, gizarte plural eta moderno batean agertzen diren egoera ezberdinetarako. Gizarte zibilaren eta administrazio publiko guztien lankidetzat lortu nahi du egoeraz jabetu, arazoaren diagnostikoa egin eta elkarrekin batera irtenbideak bilatzeari begira. Hori guztia, 330.000.000 euroko aurrekontua erreferentzia izanik.

Zeresana daukaten elementu guztien parte-hartzerako eta koordinaziorako sistema bat taxutzen da Etxebizitzaren Kontseiluaren bidez, zeina, berez, elkarrizketarako eta Nafarroako Gobernuari laguntzeko mahai bat baita. Era berean, kasuan kasuko erregelamendu-aldaketak egin eta programatuari aurre egiteko behar diren lege proiektuak Parlamentuari igortzeko ahalmena eta ardura ematen zaio Nafarroako Gobernuari.

Erosketa eta akura bateragarri egiten dira etxebizitza eskuratzeko bide gisa honako proportzio honetan, hurrenez hurren: % 75 - % 25. Azken ehuneko horretatik % 20 erreserbatzen da beranduago erosteko aukera eduki ahal izateko.

Foru Lege proposamena lau kapitulu, hamaizazpi artikulua, hiru xedapen gehigarri, xedapen iragankor bat eta azken xedapen batez osatuta dago.

Etxebizitza babestuaren produkzioa: etxebizitza-politikaren oinarritzko ardatza, herritarrari laguntzeko oinarritzko figura eta merkatua arautzeko elementua den aldetik. Akurarako etxebizitza babestuaren garapena: formula hori egokia izan daiteke lehen etxebizitza eskuratzeko beharra edo/eta aldi baterako beharrak dauzkaten pertsona ugariarentzat, baita zenbait kolektibo behartsu-erentzat ere (gizarte-bazterketaren aurkako borroka). Hiri-birgaitzea eta -berriztatzea:

eraikuntza-ondarearen errebalorizazioa eta hiri-lehenegaitzea birgaitze integratuko politiken bitartez. Lurzoru-politika: giltzarria etxebizitza-produkziozko prozesuan eta prezioak zehaztean. Etxebizitzaren kalitatearen sustapena: oinarritzko betekizuna, eraikuntza-prozesuan, etxebizitza-produktuan eta herritarrari etxebizitza-zerbitzua ematean eragiten duena. Bioklimatismoaren sustapena: ingurumenaren errespetuari eta garapen jasangarriari buruzkoak izan behar du, zalantzarik gabe, etorkizunerantz begiratzen duen etxebizitza-politika baten konpromisoetako bat. Etxebizitza-informazioko eta herritarrari erantzuteko sistemak hobetzea: merkatuaren egoerari buruzko informazioaren eskuragarritasuna eta herritarrekin behar bezalako komunikazioa izatea, bai dauden laguntza-bitartekoei buruz, bai etxebizitza-politikaren erabilera optimizatzea: etxebizitza hutsen kopurua murriztea eta etxebizitza babestuak nahiz laguntza publikoak behar bezala erabili eta bideratzen direla ziurtatzeko administrazioak egiten duen zaintza-lana hobetzea. Neurriak eta programak, gehigarriak eta berariazkoak. Udalen, sindikatuen, sustatzaileen eta eraikitzaileen arteko parte-hartze eta lankidetzat nahitaezkoa. Eskuratzailentzako laguntzak, funtsean familiaren eta fiskalitatearen arloetakoak.

Horietako bakoitza jarduera-ildo bat da botere publikoentzat, eta horietako bakoitzak ere, berez, Foru Lege proposamenaren bizkarrezurra osatzen du, eta horren osagarri dira aurrekontu-ekitaldi ezberdinetako aurrekontu-konpromisoak.

I. KAPITULUA **Xedapen orokorrak**

1. artikulua. Xedea.

Lege honen xedea da Nafarroako herritarrei etxebizitza eskuratzeko laguntza eraginkorra emateko zenbait neurri arautzea. Neurri horiek jabari publikoko edo titularitate pribatuko lurzoruen gainean Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak eginiko ekintzak eta esparru administrazio, fiskal edo zibilean ezartzen direnak izanen dira. Lege honetako helburu, neurri, jarduerardatz eta aurrekontu-aurreikuspenen multzoak eta Lege honen edukiaren gainerakoak, lege-izae-rak berak ere, osatzen dute Nafarroako Foru Komunitateko ekintza-plana etxebizitzaren arloan, bere indarraldirako.

2. artikulua. Aplikazio-eremua.

Lege honetan bildutako neurriek agintzen dute Nafarroako Gobernuaren eta haren menpeko organismo eta entitateen jarduera, Nafarroako

Foru Komunitatearen lurralde osoan aplikatuko dira eta euren indarraldia 2006ko abenduaren 31ra bitartekoa izanen da.

II. KAPITULUA Helburuak

3. artikulua. Etxebizitza babestuaren produkzioa.

1. Prezio mugatuko etxebizitzaren eskaintza gehitzea, Lege hau betearazteko denbora-eparako kalkulaturiko etxebizitza-beharrizan babesgarrien %100 ase eta 17.000ra iritsi arte.

2. Etxebizitza babestuen multzoaren barnean prezio mugatuko etxebizitza-mota gehiago sustatu edo/eta sortzea, gizarte-talde ertainen beharriaz erantzuteko, zailtasunak baitauzkate bai babes ofizialeko etxebizitzak bai etxebizitza librea eskuratzeko. Horretarako, erregelamendu bidez garatu eta birdefinituko dira honako hauek:

- BOE-Araubide Berezia
- BOE-Araubide Orokorra
- Babesturiko BOE berria
- Etxebizitza Libre Tasatua
- Emantzipaziorako etxebizitza
- Akura
- Gazteentzako akura
- Beste kolektibo batzuentzako akura
- Etxebizitza erostea jabe den administrazioak lurzuaren gaineko erreserba duela.
- Akura, erosteko aukera barnean duela.

3. Babesturiko etxebizitzaren produkzio maila antzemandako eskariari erantzuteko adinakoa izan dadin behar diren baldintzak sortzea, kantiitate, prezio eta kokalekuaren ikuspegitik xede horretarako egokia den lurzoru erabilerara ekarri, modulua aldiro gaurkotzeko sistema garden eta objektibo bat ezarri, eta etxebizitzarako laguntzaren ildoak beharrian eta estrategia berrietara egokituz, honako hauen bitartez:

a) Etxebizitzak sustatzeko programa urtero egin dadila, babes edo laguntza araubidearen arabera. Urteroko maiztasun horren eskutik dator gero eta etxebizitza gehiago egitea: 2002an 2.500 etxebizitza egitetik 2006an 4.000 etxebizitza egiteraino.

b) Operatzaile-motaren araberako sustapena: proposatzen da VINSAREN bitartez nolabaiteko babes edo laguntzaren bat daukaten etxebizitza guztien %10, gutxienez, susta dadila.

c) Lurzoruaren merkatuan esku hartzea, ezarritako produkzio-beharrizanei egokituriko eskaintza ahalbidetzeko, estrategia eta eragile ezberdinen bitartez, administrazioen arteko adostasuna lortzen saiatuz eta sektore pribatuaren lankidetzak bultzatuz. Lurzoru-urritasuneko egoerei aurrea hartzea, alde aurretik ekiteko. Epe luzeko politikak garatzea.

4. Beharrian-mota ezberdinetarako babesen arteko oreka ahalbidetzea, alde batetik prezio tasatuko etxebizitzaren figura indartuz eta, bestetik, errenta-maila baxuei zuzenduriko araubide bereziko etxebizitzaren produkzioa gehituz.

5. Babesturiko etxebizitzaren produkzioa eskualdeen arabera egitea, beharrianen banaketari egokituz eta etxebizitzaren banaketa geografikoa eginez: sustatu beharreko etxebizitzaren %70ek Iruñerrian kokatuta egon beharko lukeela proposatzen da, antzemandako beharrianen kontzentrazioa eta 1997-2000 Planean metaturiko beharrian erantzungabeak direla-eta.

6. Etxebizitza-eskaintzak familiaren beharriak aintzat hartzea.

a) Ponderazio-koefizienteak hobetzea, seme-alabak dauzkaten familientzako laguntzetarako.

b) Familia ugarietarako abantailak prezio tasatuko etxebizitzetan, eskuratzeari eta banatzeari dagokienez.

c) Etxebizitza erosteko aurrezki-kontuetan hobekuntzak egitea. Seme-alabek etorkizunean etxebizitza erosi ahal izateko famili aurrezkiak sustatzera bideraturiko epe oso luzeko produktuak sortzeari buruzko hausnarketa egitea.

4. artikulua. Akurarako etxebizitza babestua

1. Akurarako etxebizitza babestuaren politika –Españian urte askotan existitu ez den hori, alegia– etxebizitza-planen helburu komuna bihurtu da azken hamarkada honetan. Hala ere, arlo honetan gauzaturikoa urria da oraindik.

Lege honek egoera hori aldatzea du xede, eta akura-araubideko etxebizitza babestuak eraikitze-ko politika eraginkor bat abiatzea eragozten duten faktoreetan eragitea bilatzen du, halako politika bat aldi baterako bizileku-beharrianak asetzeko egokia izatearen uste osoan oinarriturik eta, halaber, diru-sarrera urriak dituzten familientzat irtenbide bat den aldetik.

2. Akura-politikak honako helburu hauek izan behar ditu:

1. Akurarako etxebizitzaren eskaintza handitzea (edozein babes-araubidetakoa), akura-mer-

katua oraingoa baino normalizatuagoa eta gizarte-onarpen handiagokoa izan dadin.

2. Akura-araubide publiko eta pribatuen artean bereizketa argia egitea.

3. Toki entitateei parte harraraztea euren bizilagunen beharrianak asetzera bideraturiko akura-politikan.

4. Gaur egun hutsik dauden etxebizitza ugari akura-merkatuan jartzea, bereziki beharrian handiagoa egon litekeen hiri-eremuetan.

5. Sustaturiko etxebizitza babestu berri guztien %25 akurarako izanen da.

3. Horretarako, estrategia eta neurri multzo bat proposatzen da:

a) Akurari buruz indarra duen laguntza-araubidea aldatzea, sustatzaileari begira duen bideragarritasun ekonomikoa hobetzeko, sustatzailea publikoa nahiz pribatua izan, honako irizpide hauei jarraituz:

– Diru-laguntzak eta finantzaketa-laguntzak orekan egotea egin beharreko inbertsioekin.

– Akurarako etxebizitzaren sustapenerako laguntzak egokitu edo ezberdintzea babes-araubide ezberdinen eta ustiapen-eparen –hau da, etxebizitzak edukitzea-araubide hori edukiko duela bermaturik dagoeneko urteen– arabera.

– Epe luzeko akurarako sustapenerako ahalik eta laguntzarik gehienak ezartzea (normalki, publikorako). Aldi berean, epe ertaineko akuran (normalki, pribatua) mantentzeko araubide bat ahalbidetzea; akura horrek laguntza gutxiago izanen ditu, eta maizterrek prezio mugatua erosteko lehentasunezko eskubidea izanik bukatu ahalko da.

– Sustapenak beharrezko dituen inbertsio-faseei loturik ematea laguntzak.

– Akuraren tratamendu fiskala hobetzei buruzko hausnarketa egitea, ezertan galarazi gabe Estatuko fiskalitatearekiko harmonizazioa (BEZa, diru-laguntzak inbertitzeko epea eta abar).

– Jabe partikularrengandik akuratzeko aukerak hobetzea.

b) Akura-arloan indarra duen laguntza-araubidea aldatzea, agertzen dituen arazo batzuk konpontzeko, honako irizpide hauei jarraituz:

– Etxebizitzak erabiltzean errotazioa egotea ahalbidetzeko eta iruzur egitea eragozteko neurriak: akuraturik dauden etxebizitza babestuen esleipen-sistemak eta horien berriztatzea ikuskatzea: dokumentu-aurkezpena, gutxieneko eta

gehieneko dirusarreraren frogak, jabetzarekin batearazina izatea. Etxebizitza errentan hartu duena konturaraztea dirulaguntza pertsonalizatua dela, eta ez dela automatikoki berriztatzen.

– Akurarako etxebizitzaren diseinua egokitzea, euren bideragarritasuna eta iraunkortasuna bermatuz: tamaina-aukera egotea eta kontsumoak eta bizilagun-erkidegoko gastuak ahalik eta neurri handienean murriztea.

c) Ekimen publikoaren zuzeneko ekintzak

– Lurzoru publikoaren lehiaketan barruan akura babesturako berariazko orubeak ezartzea.

– VINSAk akurarako etxebizitza babestua ekointz dezan sustatzea.

– Nafarroako toki entitateek akura-politikan esku hartzeko bideak ipintzea, gai horretan zenbait ekintza egiteko hitzarmen bat eskainiz. Hitzarmen horrek VINSaren esku-hartze tekniko eta kudeaketakoa ezarriko du.

d) Partikularrek etxebizitzak errenta babestuan jartzei bultzada ematea.

Etxebizitza huts gisa jotzen direnak errentan jartzeak nabarmen lagundu dezake hurrengo urteetan merkatuak eginen duen eskaera asetzen. Orain arte hartutako neurri bakanak hertsatzaile edo zigortzaileak izan dira (berariazko toki-zerga), eta ez dira aplikatuak izateraino iritsi. Horretan zeresana izan du etxebizitza bat hutsik noiz dagoen ondorio hauetarako zehazteko zailtasun handiak eta, alderantziz, kontrakoa egiaztatzeke xedez jabeek elektrizitate- edo ur-gastuak frogatzeko daukaten erraztasunak.

Hori dela-eta, plan honek pizgarriak ematearen aldeko aukera egin du; pizgarri horiek nolabaiteko arrakastaz aplikatzen dira, jadanik, Espainiako beste eskualde batzuetan. Neurri hauei buruz dihardugu:

– Laguntzeko eta etxebizitza hutsen jabeak sensibilizatzeko programak behar bezala iragarritzea, euren etxebizitzak akura ditzaten.

– Etxebizitza-erosleari bideraturiko akuratzeko laguntzak ezartzearen egokitasuna aztertzea. Operatzaile edo bitartekari publiko baten bidez (iruzurrak eta bidegabekeriak eragozteko) eginen litzateke, eta baldintza batzuk ezarri:

- Akura gutxieneko denbora-epe baterako izatea.
- Akura gauzatzea eta jarraitua.
- Etxebizitzan nagusiki maizterra bizitzea.

- Bazter utzitako aurrekoak, ondorengoak eta unitate fiskaleko kideak.

- Gehieneko errenta, eskualde geografikoaren arabera.

- Maizterraren gehieneko diru-sarrerak (etxebizitza babestuaren baldintzaren baliokidea da, baina ehuneko jakin batean igoa).

- Jabeentzako berme ordezkioak agiri bidez gauzatea eta sistematizatzea: etxebizitzaren zaintzari dagozkion aseguruak, ordainketa-bermeak, fidantzak, abalak... Arlo honetan administrazioaren esku-hartzea egoteari buruzko hausnarketa egitea.

- Lehentasunezko ekintzen eskualdeen hautaketa aztertzea.

e) Eskariari laguntzeko berariazko programak garatzea.

- Laguntza-multzoa sinplifikatu eta argitzea (eskaintza eta eskaria).

- Maizterrarentzako laguntza fiskala mantentzea.

- Etxebizitzen edukitza-araubide hau sustatzeko dauden formulak hobetzea eta sustapen-bitarteko berriak identifikatzea (eskaintza eta eskaria):

- Beharrizana daukatenen tipologiari egokitzea akura: errentak ezberdintzea egokia ote den, helburu diren kolektiboak bereiztea.

- Erosteak aukera izanik akuratzearen formulak zer-nolako bideak irekitzen dituen aztertzea.

- Iraupen zehatzeko programak ezartzea egokia ote den aztertzea.

- Baliabideak inbertitu behar dira akuraren irudi soziala hobetzeko; hain zuzen ere, etxebizitza-beharrizana asetzeko eta, batez ere, aldi baterako beharrizan jakin bat daukaten kolektiboentzat aukera onargarria den aldetik.

- Lankidetzaren Gizarte Ongizate Departamentuarekin: akura, gizarte-bazterketaren aurka borrokatzeko politikako elementua den aldetik.

f) Akuratik abiatuz jabetza eskuratzeko azpi-programa bat ezarriko da, zeinak babesturiko akuraren %20 gutxieneko helburu gisa izanen baitu.

5. artikulua. Hirigintza-arloko birgaitze eta berriztatzea.

1. Hirigintza-arloko birgaitze eta berriztatzearen denaz bezainbatean, honako helburu hauek ezarri dira:

1. Birgaitze-ekintzek 10.000 etxebizitzatan eragitea lortzea.

2. Toki Entitateek birgaitze-politikan esku-hartze handiagoa izan dezatela lortzea, laguntza berariazko, kudeaketako, tekniko eta ekonomikoaren bitartez.

3. Barne-erreformako, berriztatze lanetako eta hiri-ekipamenduko ekintza adostuak egitea.

4. Birgaitzeak izan dezakeen alderdi soziala aprobetxatzea.

Helburu horiek lortzeko, hurrengo lerrokatetan adierazten diren neurriak hartuko dira:

2. Hirigintza-arloko berriztapen integraleko prozesuak sustatzeko dira, etxebizitzak eta euren ingurunea ukituko dituzten eragiketen bitartez (eremu publikoak, ekipamendu-dotazioak, eraikin erakusgarriak...).

Gai horretan esku hartzeko programak sortu eta baliabidez hornitzea, beharrezkoak diren giza baliabideak, antolaketakoak eta finantzarioak izan ditzaten.

Nafarroako Gobernuaren eta Toki Entitateen artean hitzarmenak egitea, eraikinak birgaitzeko ez ezik herrigune historikoetako hiri-bilbean eremu urbanizatu estrategikoak lortzeko ere balio izan dute ekintza zehatzak egiteko.

Udalei laguntza teknikoa ematea hirigintza-arloko antolamendu eta berriztatzearen ikuspegitik ekintza eta programa zehatzak egitera bideraturiko gogoeta bati ekiteko.

3. Birgaitze-arloko ekintzen eta laguntzen multzoa birdefinitzea, ikuspegi ezberdinetatik:

Birgaitze-bulegoen eskumenak eta jarduerak argitu eta definitzea, horien efizientzia eta eraginkortasuna handiagoa izateko. Birgaitze-arloko bultzada-, aholku- eta kudeaketa-beharrizanak ikuspegi geografikotik osoki asetzen direla bermatzea.

Birgaitze-arloan herritarrari eta eragileei (birgaitze-bulegoak - Ogasun Departamentua - sustatzaileak) lagundu, aholkatu eta informatzeko eginkizunak indartzea.

Neurri pizgarriak taxutzea, birgaitzearen arloan ekimen pribatuak hein handiagoan esku hartzea lortzeko. Sustatzaile-birgaitzailearen berariazko figura bultzatzea.

Birgaitzeari buruzko araudia berrikusi eta hobetzea, ekintzak errazteko. Birgaitze-laguntzak pertsona fisiko eta juridikoei, jabe akuratzaillei edo lekuan dirautenei eman dakizkien uztea, bizilagun behartsuen mesedetan, betiere.

Gazteen aldeko diskriminazio positiboa, biztanle-kolektibo honek eginiko birgaitzerako pizgarriak emanez (etxebizitza eskuratzeko dauzkaten aukerak hobetzea, eskualde batzuek biztanle gal ditzaten eragozteko, dagoen ondarea etorkizunari begira errebalorizatzea eta abar).

PFEZean birgaitzeari ematen zaion tratamendua aldatzea aztertzea, konplexua baita. Orobat beste tributu batzuetan.

Erabilitako etxebizitza gisa erosi diren etxebizitzak birgaitzea sustatzea, gizarteratze ondorioetarako.

4. Erabilitako etxebizitza gisa erosi diren etxebizitzak birgaitzea sustatzea, gizarteratze-ondorioetarako.

Gizarte Ongizate Departamentuarekin eta hitzarmenaren kide diren irabazi-asmorik gabeko erakundeekin koordinatzea gizarteratze-etxebizitzak erosteko.

Birgaitze-bulegoen aholku-ematearen bitartez laguntzea jadanik erositako gizarteratze-etxebizitzak euren bizigarritasun-baldintzak hobetu ditzaten.

6. artikulua. Lurzoru-politika.

Lurzoruen arloko jarduerari dagokienez, Gobernuaren ekintzak honako helburu hauek lortzea bideratuko dira:

1) Lurzoruari buruzko araudia aldatzeko honako ildo hauek ezarriko dira:

– Haren taxutzeak aintzat har ditzala gure lurraldeko beharrezkoak eta etxebizitza babestu eta sozialetarako dagoen egiazko eskaria.

– Estatuaren, foru komunitatearen eta toki entitateen titularitateko lurzoruen inbentario bat egin dadila, berarekin babes ofizialeko etxebizitzetarako lurzoru publikoko banku bat eratu ahal izateko modukoa.

– Nafarroako Gobernuak eta udalek hitzarturiko lankidetzarako esparru-hitzarmenak arautuko dituzten bitartekoak taxutu ditzala eta, halaber, lurzoru-jabeekin lankidetzak hitzarmenak egiteko bideak ere ezar ditzala, elkarren arteko adostasunari lehentasuna emanen diotenak lurzoru eta hirigintzarako tresna egokiena izatearen ondorioz –desjabetzea baztertu gabe, emaitza orokor egokirik lortzen ez baldin bada–. Horretarako, toki-entitateei eta lurzoru-jabeek laguntzeko neurriak ezarri behar dira, erabilera publikorako lurzorua lortzea erraztuko dutenak.

– Nafarroako Gobernuak udalei aholku emateko bulego tekniko bat sortzea, etxebizitza babes-erakundeak epean azkartasuna erraztu eta lurzoru publikoaren gaitze, araubide, haren sailkapen eta abarri buruz aholkatzeko.

– Lurzorua lehentasunez erosi eta atzera eskuratzeko eskubideei dagokienez, foru administrazioak udalei nahitaez kontsulta egin beharra xede den azalera 100.000 metro koadro baino gehiagokoa denean.

– Zenbait bitarteko ezartzea udal-aprobetxamenduen lagapenen %10aren erdiak, gutxienez ere, lurzoru publiko gehiago erosteko erabiltzen direla ziurtatzeko, edo, hori ezinezkoa bada, etxebizitza babestuak eta sozialak eraikitzeko.

– Iruñeko eskualdeko hirigintza arauetan sarturik dauden bi mila biztanle beherako udalei hedatzea lurzoru publikoaren ondare bat eratzeko betebeharra, lursailen merkaturak arautzeko eta ekimen publikoko ekintzetarako lurzoru-erreserbak lortzeko, bi mila biztanle gorako udalei 10/94 Foru Legeko 265. artikulua agintzen dien bezala.

2) Foru Administrazioak Lurzoru Banku bat sortu behar du, etorkizuneko ekintzak epe ertain eta luzean aurreikusteko; horretarako, partikularrei eta entitateei erosketak eginen zaizkie, edo, bestela, desjabetze-sistema aplikatuko da. 7.000.000 metro koadro gaituko dira lurzoru eskuragarri izateko.

Helburuak izanen dira lurzoru publikoaren erreserba bat eratzen joatea eta epe laburrean herriguneetatik nahiko urrun dauden lurretan epe luzeko espekulazioa egon dadila eragozteko, horren ondorioz zonarik hurbilenak garestitu egiten baitira. Nolanahi ere, desjabetze-sistema proposatzen da administrazioak eskaintako prezioari –zuhertasunaren eta gainbalioaren izaera soziala aintzat hartuz kalkulatu– ezezkoa ematen zaion kasu guztietarako.

3) Behar diren arau-aldaketak eginen dira udal-planeamenduetan udalek babes ofizialeko etxebizitzetarako lurzoru-erreserba %50eraino igo dezaten, eta hirigintza-planak onesteko epeak hein handian laburtzeko.

7. artikulua. Eraikuntzaren kalitatearen kontrola

1. Helburuak.

1. Gizarteak gaur egungo teknologiaren eta bitartekoen egoeraren arabera eskatzen duen kalitate-maila eraikin eta etxebizitzetan lortzen dela ziurtatzea.

2. Administrazioetik eraikuntzaren kalitatea bultzatzea, prozesuan esku hartzen duten eragile guztiei prestakuntza eta pizgarriak bideratuz.

2. Honako neurri hauek hartuko dira:

1) Eraikuntzari buruzko oinarrizko arauak eta eraikinaren kalitatean eragiten duten bestelako xedapen edo erregelamendu nahitaezkoak proiektuan teorikoki zein neurritan betetzen diren zehazteko ebaluazio estatistikoa.

2) Araudia teorikoki betetzen duten soluzioek obra amaituan erdietsitako egiazko prestazio-maila ebaluatzearen bideragarritasunari buruzko azterlana.

3) Aginduzkoak diren saioak (lehen fase batean egiturei buruzkoak soilik) obran zein neurritan betetzen diren zehazteko ebaluazio estatistikoa.

4) Bizigarritasunari buruzko araudia berrikusi, gaurkotu eta bateratzea. Oin berriko etxebizitzamota guztiei aplikatuko zaie, kontuan izan gabe babes ofizialeko etxebizitzak, prezio tasatukoak edo libreak diren.

5) Babes ofizialeko etxebizitzaren kalitateari buruzko 1976ko arau teknikoak berrikusi eta gaurkotzea.

6) Kalitatearen arloko prestakuntza, ikerketa eta esperientzien hedapena sustatzea.

7) Suspertze-bitartekoak erabiliz kalitatea sustatzea.

– Produktuen, sistemen edo enpresen kalitate-bereizgarrien lorpena sustatzea, horien berri sistematikoki emanez.

– Nafarroako erakundeek kalitate-sistemak ezartzeko edozein motatako laguntza –baita ekonomikoa ere– eman dezaten lortzea, eraikuntza-prozesuan parte hartzen duen edozein eragilerentzat.

8. artikulua. Bioklimatismoa sustatzea

1. Arlo honetan erdietsi beharreko helburu hauek ezarri dira:

1. Eraikuntza bioklimatikoaren aldeko dinamika kultural bat sortzea, iritzi publikoak bizitokien alderdi bioklimatikoaren aldeko jarrera orokorra izatea lortuz eta profesionalen (teknikari, sustatzaile, eraikitzaile eta abarren) sentsibilizazioa eta prestakuntza bultzatuz.

2. Energia-aurrezpenari, energia berriztagarrien erabilerari eta material osasungarrien erabilerari bultzada ematea.

3. Eraikuntza bioklimatikoaren prozesuan esku hartzen duten eragileen sinergia lortzea: administrazioa, erabiltzaileak, arkitekto eta arkitekto teknikoak, ingeniariak, sustatzaileak, eraikitzaileak, instalatzaileak, hornitzaileak, energia-kudeatzaileak, finantzariak, aseguru-enpresak, material-hornitzaileak eta abar.

9. artikulua. Etxebizitza-informazioko eta herritarrari erantzuteko sistemak hobetzea

1. Helburuak

1. Herritarrari erantzuteko kalitatezko zerbitzu bat bermatzea; horretarako, herritarraren eta erakundearen artean etxebizitza-gaiei buruzko komunikazio- eta informazio-lotura zuzeneko eta berehalako bat sor dadila proposatzen da.

2. Etxebizitzaren behatoki bat sortzeko aurrepausoak ematea. Behatoki horrek merkatuari eta etxebizitza-politikari buruzko adierazle nagusiak jasoko ditu, eta giltzarri izan beharko du erabakiak hartzen laguntzeko.

3. Herritarrari erantzuteko zerbitzu individualizatu eta iraunkor bat abiaraztea, edozein babes-araubidetako etxebizitza guztiak barnean hartuko dituen informazio-banku bat kudeatuko duena. Halaber, bere eginkizuna izanen da edozein babes-motatako etxebizitzetarako eskaeren erregistro bat sortu eta gaurkoturik edukitzea.

10. artikulua. Etxebizitza-multzoaren erabilera optimizatzea

1. Helburuak

1. Etxebizitza hutsen multzoa mugiaraztea, etxebizitza horien aprobetxamendurik onena bermatzeko. Udalekin elkarlanean, etxebizitza hutsen errolda bat sortuko da.

2. Babesturiko etxebizitza orori loturiko betebeharrak eta baldintzak aurretiaz kontrolatzeko politikari eustea eta kontrolak hobetzea behar adinako neurrian aplikatzen ez diren arloetan.

2. Neurriak

1. Laguntza-bitartekoak antolatzea, jabeentzat etxebizitza hutsak merkatuan ipintzea erakargarria izan dadin –betiere, akura-merkatua hobetsirik–.

– Dirulaguntzak.

– Laguntzei buruzko informaziorako tresnak, aholku ematea, akuraturiko etxebizitzak kudeatzea, maizterrak bilatzea, etxebizitza egoera onean edukitzeko aseguruak, akurak kobratzeko bermeak eta abar.

– Jabetza higiezinako agenteekin akura-lanetako bitartekotza eta kudeaketako arlo hori guztia

garatzeko adostasuna lortzeak zer-nolako interes duen ebaluatzea.

2. Iruzuraren aurka borrokatzeko bitartekoak antolatzea, hiru ardatzetan jardunez:

– Gizarteari zuzenduriko kontzientziazio- eta komunikazio-kanpainak (jarrera batzuek ekartzen dituzten kostu sozialak).

– Ikuskaritza areagotzea. Iruzuraren aurkako unitate bat sortzea.

– Babes ofizialeko etxebizitzari buruzko araudia gaur egungo gizarte-errealitateari eta araudiari egokitzea (araudi hori osatzen dute, nagusiki, Eraikuntzaren Antolamenduari buruzko Legeak eta kontsumitzaileak eta erabiltzaileak defendatzeko araudiak).

11. artikulua. Etxebizitzaren arloko neurri gehigarriak

Nafarroako Gobernuaren etxebizitza-politikak hasierako ekintza hauek izanen ditu abiapuntu:

– Proposaturiko mota berriak sortzea.

– Babes ofizialeko etxebizitzak eraiki nahi dituzten gizarte-entitateekin kolazio-hitzarmenak egitea eta lurzorua zuzenean esleitzea.

– Babes ofizialeko etxebizitzak eraiki nahi dituzten enpresekin akordioak egitea eta lurzorua zuzenean esleitzea, egoerari aurre egiteko salbuespeneko neurri gisa.

– Modalitate guztietako etxebizitza babestuak sustatzeko enpresa publiko berri bat eratzea. Haren kapitalaren gehiengoa publikoa izanen da eta Nafarroako finantza-entitateek bertan parte hartuko dute.

– Kolektibo jakinek eskuratu ahal izateko programak.

– Etxebizitza babestuak ez erabiliz, iruzurrezko akuren bitartez eta bestela eginiko maularen aurka borrokatzeko sistema.

– Etxebizitza hutsen gaineko zerga bat sortzea.

– Etxebizitzak errentan ematen dituzten jabeen zuzenduriko hobariak, udal-zergei eta errenten gaineko zergeri aplikatuko zaizkienak.

– Unibertsitate-egoitza eta unibertsitate-ostatu berriak irekitzeko politika.

– Lehen etxebizitza besterentzearen gaineko zergak murriztea, baldin eta beste bat erosten bada.

12. artikulua. Berriazko programak.

Beharizan zehatzei aurre egiteko berriazko programa hauek proposatzen dira:

1. Hirugarren adina.

2. Etorkinak.

3. Minusbaliatuak.

4. Itzulitako nafar emigratzaileak.

5. Guraso bakarreko familiak.

6. Gazteei begira, etxebizitza-mota berri bat sortzea proposatzen da; hain zuzen ere, emantzipaziorako etxebizitza. 50etik 70 metro koadrora bitarteko etxebizitza bat erosteko aukera izanik akuratzean datza. Etxebizitza hauek 18-35 urte bitarteko gazteei zuzenduta leudeke, eta erosteko aukera izanen lukete etxebizitzan bizitzen hasiz geroztik bost eta hamar urte igarotzean.

13. artikulua. Udal, sindikatu eta enpresen sektorearen parte-hartzea.

Ezertan galarazi gabe Gobernuak egin edo onesteko proposatu beharreko arau-aldaketak, toki entitateekin lankidetzak-politika bat egingen da. Horretarako, toki administrazioekin behar diren hitzarmenak sinatuko dira edo toki administrazioek lege honen helburuak betetzeko eginkizunean jardun aktibo eta dinamikoa izatea ahalbidetuko duen bestelako edozein formula erabiliko da.

Halaber, sindikatuen eta sustatzaile eta eraikitzaileen sektorearen laguntza bilatuko da.

14. artikulua. Erosleentzako laguntzak.

Honako hauek lortzeko behar diren arau-aldaketak egingen dira:

1. Etxebizitza-kontuen epea zortzi urte arte luzatzea.

2. Erosleak hala eskatuta, hipoteka-maileguen amortizazio-epea hogeitaz urte arte luzatzea.

3. BEZaren zerga-tasa %4ra jaistea, edo emaitza hori lortzeko laguntza gehigarriak ematea.

4. Familia ugarien kasuan, azalera erabilgarri gehigarria ezarriko da.

Halaber, Nafarroako Gobernuak familien artean epe luzeko aurrezki-produktu finantzarioak sustatzea komeni ote den aztertuko du, horien bidez lehen etxebizitza erosteko eta horren zerga-petzea taxutzeko.

III. KAPITULUA Administrazioak aurrekontuetan harturiko konpromisoak

15. artikulua.

2002tik 2006rako Nafarroako Aurrekontu Orokorretan Nafarroako Gobernuak behar adinako kopuruak jasoko ditu lurzoria lortzeko, hori urbanizatzeko obrak egiteko, etxebizitzak erosteko laguntzak emateko eta interesei aurre egiteko laguntzak emateko. Epe horretarako erreferentzia orokor gisa, 330.000.000 euroko kopurua finkatzen da.

IV. KAPITULUA Etxebizitza Kontseilua

16. artikulua. Nafarroako Etxebizitza Kontseilua eratuko da. Horren eginkizuna izanen da foru lege hau nola betetzen den jarraitzea, eta espresuki ezartzen zaio foru lege honetan jasotako helburuen urteroko egutegia egitearen ardura.

17. artikulua. Aipaturiko organoa honako hauek osatuko dute: Nafarroako Gobernuaren ordezkariak, %35eko neurrian, Udalen ordezkariak, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren bitartez, %10eko neurrian, eraikitzaile eta sustatzaileen elkartearen ordezkariak, %10eko neurrian, kontsumitzaileen erakundearen ordezkariak, %15eko neurrian, sindikatuen ordezkariak, %20an, Arkitekto eta Aparejadoreen Lanbide Elkargoaren ordezkariak %5eko neurrian, eta helbidea Nafarroan daukaten aurrezki-kutxa eta kreditu-kooperatiben ordezkariak, %5ean. Ezin izanen da hogeit hamar baino gutxiagoz osatu egon, ez eta hogeita hamar baino gehiagoz ere. Erakunde horretako lehendakaria Nafarroako Gobernuaren Etxebizitza kontseilaria –zeina betiere egonen baita Nafarroako Gobernuaren ordezkarietan– izanen da. Bertako kideak Etxebizitza kon-

tseilariak izendatuko ditu, ordezkariak bakoitzak hala proposatuta.

Xedapen gehigarriak

Lehenbizikoa. Nafarroako Gobernuak 2002tik 2006rako Nafarroako Aurrekontu Orokorretan ezarriko ditu foru lege honetan finkaturiko edo bertatik eratorritako konpromiso eta helburuak betetzeko behar diren kontusailak.

Bigarrena. Nafarroako Etxebizitza Kontseilua eratuko da foru lege honek indarra hartu eta hiru hilabeteko epean, gehienez ere. Horretarako, Nafarroako Gobernuak ohartarazpenak bidaliko dizkie ordezkariari, behar diren ondorio eta trami-teetarako.

Hirugarrena. Nafarroako Gobernuari ardura eta ahalmena ematen zaio behar diren eta foru lege honen edukiaren ondoriozkoak diren arau-eta erregelamendu-aldaketak egiteko, bere esku-menen mugen barruan. Halaber, foru lege honek indarra hartu eta bi hilabeteko epean foru legeak ezarritako helburuak eta neurriak betetzeko behar diren foru lege proiektu guztiak Nafarroako Parla-mentura igortzeko ardura ezartzen zaio.

Xedapen iragankorra

Foru lege hau 2002ko aurrekontu-ekitaldian aplikatzeak dakartzan betebeharrak betetzeko, Nafarroako Gobernuak, foru lege honek indarra hartu eta hilabeteko epean, ezohiko kreditu bate-rako lege proiektua bidaliko du Nafarroako Parla-mentura, bertan onetsia izateko, baldin eta luzatu-riko aurrekontu-xedapenak nahikoak ez badira.

Azken xedapena

Foru lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean.

Foru Lege proposamena, Euskal Herrirako Unibertsitateari buruzkoa

TRAMITERA EZ ONARTUA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Euskal Herrirako Unibertsitateari buruzko foru lege proposamenaren idazkia ikusita, herriaren legegintza-ekimenaz Uxua Aribizu Rezusta andrea eta besteek aurkeztua, Biltzarreko Erregelamenduko 146.1 artikulua eta herriaren legegintza ekimena arautzen duen martxoaren 25eko 3/1985 Foru Legeko 2.a) artikulua xedatutakoarekin bat, ERABAKI DA:

1. Euskal Herrirako Unibertsitateari buruzko foru lege proposamena tramitera ez onartzea, Nafarroako Foru Komunitateak horri buruzko legegintza eskumena ez edukitzeagatik.

2. Erabaki hau Uxua Aribizu Rezusta andreaki jakinaraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2002ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko bi legelari lanpostu huts lekualdatze-lehiaketaren bitartez betetzekoa

Onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda

Lehendakaritza honek, Mahaiak 2001eko ekainaren 4an hartutako erabakiaren bidez onetsitako deialdiaren 4.4 oinarriak ezarritakoaren arabera –deialdi hori 2001eko ekainaren 29ko 79. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen–, ERA-BAKI DU:

1. Jarraian transkribatzen den onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onestea.

Onartuak:

Esparza Oroz, Miguel

Baztertutak:

Bueno Barranco, Begoña

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2002ko otsailaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

| | |
|---|---|
| <p>HARPIDETZAREN PREZIOA</p> <p>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</p> <p>Urte bat..... 39,07 euro</p> <p>Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 0,96 »</p> <p>Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 1,14 »</p> | <p>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</p> <p>NAFARROAKO PARLAMENTUA</p> <p>«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»</p> <p>Arrieta 12, 3</p> <p>31002 IRUÑA</p> |
|---|---|